ASTELEHENEKO

# Goienkaria

2010eko maiatzaren 3a > Astelehena > VII. urtea > 275. zenbakia > 1,10 euro

Goiena 10 URTE www.goiena.net TOKIKOM

"Aurre fabrikazioak bilakaera izan du eta gaur egun ondo baloratuta dago"

**Rufino Hernandez**
EHUko arkitektura irakaslea > 9



**ASTEKO GAIA**
**Jaunartzeetan ere aurrezten saiatzen dira gureko familiak** > 03

**DEBAGOIENA**
**Aranburuzabalako bizilagunak etxera, hiru hilabete eta gero** > 04

**DEBAGOIENA**
**Emakumeen osasun sexuala aztergai, Arantzazun** > 05

**HERRIAK**
**Zapatuko finalean Aramaio bi aldiz igoko da oholtzara** > 11



**ZABALETA** Aitor Zabaleta irabazlea Udanako bihurgune handietako batean, ikusleen begiradak segika dituela. JOSETXO ARANTZABAL

**KIROLA** > UDANAKO IGOERA

## Gurpila zulatu arren, Zabaleta azkarren

**PODIUMA** Zabaletarekin batera Juan Carlos Samperio eta Angela Vilariño igo ziren podiumera

**EURIA** Hainbat auto errepidetik irten ziren euriaren ondorioz, baina ez zen ezer larririk gertatu > 21

**KIROLA** > ZIKLOTURISTAK

## Euria muga zikloturista martxan

Uste baino partaidetza txikiagoa izan zen > 22-23

**GERTAKARIA** > ERASOA

## Never Surrenderri eraso

Arrasateko musika taldeko bi kideri eraso, Gasteizen > 06

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-27
**Kultura** > 29-33
**Sailkatuak** > 34-35
**Denbora-pasak** > 36
**Telebista-Irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39



## G2a

### 'Cométe' izeneko gerrako sareari buruzko filma

Mireia Gabilondo bergararrak zuzendutako filma gaur estreinatuko dute Debagoienean; Aretxabaletako Arkupe kultura etxean bi emanaldi izango dira > 29




Iritsi dira apirileko opariak! Badago zuretako?

Zoaz 15. orrialdera



Atzo, domeka, Bergarako Santa Marina elizan jaunartzea egin zuten neska-mutikoak pozik, argazkian. UBANE MADERA

**ERLIJIOA** > UMEAK

# Jaunartzeetan ere aurrezten saiatzen dira bailarako familiak

**KRISI EKONOMIKOA** Espainian, familia bakoitzak 2.327 euro gastatuko ditu aurten ospakizun horretan; joan den urtean baino %16 gutxiago

**KALTETUENAK** Jatetxeak eta argazki dendak dira beherakada gehien igarri dutenak; lehenengoetan, faktura erdia izatera pasa da orain

**KOPURUA MANTENDU** Azken urteotan, Debagoienean jaunartze kopurua mantendu egin dela jakinarazi dute Arrasateko eta Oñatiko abadeek

**MIRIAN BITERI**> BERGARA

Jaunartzeen denboraldian sartu gara asteburuan. Atzo, esaterako, Bergaran, Arrasaten eta Oñatin egin zituzten lehenengo elizkizunak, eta datozen asteotan ere horrelakoak errepikatuko dira Debagoien osoan.

Familiek, dena dela, diru gutxiago gastatuko dute aurten ospakizun horretan. Erabiltzaile eta Kontsumitzaile Independenteen Federazioak egindako azterketa baten arabera, Espainian, familia bakoitzak, batez beste, 2.327 euro gastatuko ditu; joan den urtean baino %16 gutxiago, hain justu ere.

Banketean joaten da diru gehien; erdia, gutxi gorabehera. Oñatiko Etxe Aundi jatetxean jakinarazi digutenez, egun horretarako bereziki gertatutako menu bakoitzak 40 eta 50 euro artean balio du. Esan bezala, ospakizun horretarako aurrekontuak nabarmen egin du behera. Horren harira, Etxe Aundikoek baieztatu egin dute ikerketak dioena; hau da, familiak jatetxeko eta argazki dendetako fakturak txikitzen saiatzen direla: "Krisia igarri egin dugu. Jendeak asko txikitu ditu gastuak. Ondo jaten badute ere, plater gutxiago edo produktu merkeagoak eskatzen dituzte orain eta horrek eragina dauka kontuan".

**ARGAZKIAK ETXEAN BERTAN**

Argazki dendetan ere bat datoz jatetxe oñatiarrarekin. Bergarako Juanje argazki dendakoak aipatu digu argazkilaritzan bi gauzak izan dutela, horren harira, eragina: "Batetik, krisia; eta bestetik, jendeak nahiko erreminta dituela argazkiak egiteko. Argazki dendatik pasa beharrean, gurasoek egiten dituzte umeen argazkiak. Guk argazki horiendako produktuak eskaintzen ditugu, hala nola erretratu digitalak, oherako elementuak edo metxeroak. Merkatua aldatzen ari da eta horretara egokitu beharra dago". Bergarako KB Photoestudiokoak, berriz, esan digu aurten iaz baino jaunartze gehiago izan dituztela. Dena dela, gaineratu du jaunartze kopurua urtetan doala behera egiten. Gehienek zerbitzu osoa hartzen dutela ere dio: oroigarriak, argazki saio bat eta albuma.

Argazki dendak eta jatetxeak dira kaltetuenak. Jantzi eta zapata dendetan eta ile-apaindegietan, ordea, ez da horrenbesterako igarri. Bergarako Kizkur ile-apaindegian, esaterako, orrazketa sinpleak eskatzen dituztela eta hori diru askorik ez dela diote.

**KOPURUA MANTENDU EGITEN DA**

Bestalde, jaunartze gehienak maiatz eta ekain artean egiten badira ere, Arrasateko parrokian urrian egiten dituzte. Horazio Argarate abadearen esanetan, "ez da oraingo ohitura bat, aspaldi horrela egiten ziren. Oso gauza bitxia da". Arrasaten, aurten, 70 neska-mutikok egingo dute jaunartzea. Oñatin, berriz, 83 umek hartuko dute lehen jaunartzea atzo eta maiatzaren 9 artean.

Kopuruari dagokionez, Argarate eta Oñatiko San Migel parrokiako Joxean Larrañagaren arabera,"azken urteotan mantendu egiten da. Horretan eragina du urte horretan jaiotzen den ume kopuruak. Gainera, jaiotzen diren asko ez dira bataiatzen, eta, hortaz, murrizketa dago hor".

## Gastuak arloka

| | EUROTAN |
|---|---|
| Banketea | 40-50 |
| Argazkiak | 200-500 |
| Umearen arropa | 75-250 |
| Umearen osagarriak | 100 |
| Ile-apaindegia | 40-50 |

ESANAK

"Ondo jaten badute ere, plater gutxiago edo merkeagoak eskatzen dituzte orain eta horrek eragina dauka kontuan"

**Oñatiko Etxe Aundi** > Jatetxea

"Batetik, krisia dago, eta bestetik, jendeak nahiko erreminta ditu argazkiak egiteko, argazki dendatik pasa barik"

**Juanje argazki denda** > Bergara


HIPOTEKA
GARDENAK
KARTEL HAU
BEZALAKOXEAK.
KUTXAKO
HIPOTEKEK
ZORURIK EZ.
ONURAZ BETEAK ETA ZER EZKUTATURIK GABEAK.
HORRELAKOXEAK DIRA KUTXAKO HIPOTEKAK, GIPUZKOAR
GEHIENEN KONFIANTZA IZAN DUTENAK.
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa

**GERTAERA** > ERASOA

# Never Surrender taldekoei eraso egin diete

Skinhead itxurako 15 bat ezezagunek egin zien eraso Arrasateko taldekideei

Erasoaren ostean arrasatearrek salaketa aurkeztea erabaki zuten

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Gasteizko Gaztetxearen atarian gertatu zen erasoa, egubakoitzean. Never Surrender taldeko abeslari Andoni Iñurritegi eta Mikel Arriaran gitarra jolearen kontra jo zuten. Euren bi autoak gaztetxe aurrean uztera zihoazen musikari arrasatearrak, taldearen musika material guztia bertan sartzeko. Bada, lekukoen arabera, autoen barruan zihoazela, kontzertua ikusten egon ez ziren 15 bat ezezagun inguratu eta Iñurritegik zer gertatzen zen galdetzeko leihatila zabaldu zuenean, ukabilkada bat eman zioten inongo esplikaziorik eman barik.

**AUTOEN KRISTALAK APURTUTA**

Hala, automobilak itxi eta nola edo hala aurrera egiten saiatu ziren. Baina, emandako azalpenen arabera, orduan erasotzaileek bi autoen kontra egin zuten; hain zuzen ere, bi autoen aurreko kristalak hautsi zituzten, baita atzeko ispiluren bat ere –erretrobisorea– . Gaztetxeko kideak irten zirenean erasotzaileek korrikan egin zuten ihes.

**ERASOA ULERTU EZ**

Erasoaren ostean taldekideek salaketa jarri zuten. Talde arrasatearrak ez du erasoa nondik etorri den ulertzen, ez dute-eta sekula inongo mehatxurik eta arazorik izan. Hala ere, ez dute adierazpenik egin gura izan.

Zapatuan Azpeitiako Txarrantxa tabernan zuten kontzertuarekin aurrera segitzea erabaki zuten.



GOIENKARIA

## Errepidetik irten eta bidegorrira

Istripu ikusgarria gertatu zen zapatu goizean (08:00) Fagor Ederlanen parean. Arrasatetik Eskoriatzarako noranzkoan zihoan automobil bat errepidetik atera, eta bidegorrian geratu zen. Lekuko batek kontatutakoaren arabera, autoa geratu den lekura arte 100 bat metrotan ikus zitezkeen utzi zituen errubera markak, "balantzaka" ibili izan balitz moduan; eta gaineratu zuen, baita ere, inork ez zuela gidaririk ikusi eta han ez zegoela inor.

> HEZKUNTZA

### 31 ikastaroz osatutako eskaintza du udarako UNEDek

Bihar, martitzena, aurkeztuko ditu Bergarako UNED unibertsitateak udarako ikastaroak. "Asmo anitzak eta eskaintza pluridisziplinarrak" iragarri dituzte, "prestakuntza jarraia garatzeko asmoa duten profesionalei" aukera hori eman ahal izateko.

31 ikastaro ditu hezkuntza eskaintzak, bost eremutan banatuta: Humanitateak, Psikologia Aplikatua, Gizarte Zientziak, Bost Tailer eta Hizkuntzak (berria).

> HEZKUNTZA

### Berrikuntzan oinarritutako graduaren gainekoak

*Ametsen ekaitza* ekimenaren hirugarren edizioari amaiera emateko MUk irailean abiarazi zuen ekintzailetza eta berrikuntza graduaren nondik norakoak ezagutzeko aukera izan zuten 150 ikaslek joan den eguen eta egubakoitzean.

Batxilergoko azken ikasturteko ikasleak dira eta EAEko 22 ikastetxetan dauden 1.000 ikasle ingurutik aukeratu dituzte. *Ametsen ekaitza*-ren hirugarren edizioa MUko Leinn graduko unibertsitate ikasleek antolatu dute.

**GERTAERA** > ARANBURUZABALA KALEKO LURJAUSIA

# "Babestuta" sentitzen dira Aranburuzabala kalekoak

Etxe barruak konpontzeaz gainera, kanpoko aldea ere konpondu diete Aranburuzabalako bizilagunei; adibidez, sarea ipini dute paretan



Eufemiano Rodriguez kanpoan egin dituzten konponketak seinalatzen. TXOMIN MADINA

**TXOMIN MADINA** > ESKORIATZA

Urtarrilaren 31ko lurjausiaren eraginez orain arte etxetik kanpo egon ostean, joan den egubakoitzean hasi ziren etxera bueltatzen Aranburuzabala kaleko bizilagunak. Eskoriatzako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak utzitako etxebizitzetan egon dira orain artean gehienak. Etxera bueltan, orain bazterrak txukuntzen jardun beharko dute datozen egunotan.

**LOGELAK, KONPONDUTA**

Hala ere, pozik da, adibidez, kalterik handiena jasan zuen etxearen jabea.

Eufemiano Rodriguez 26. atariko lehen solairuan bizi da eta bi logelatan sartu zitzaion lurra, baita terrazan ere. Bi logelak konpondu egin dizkiete. "Lehenengo lurra kendu zuten, gero armairuak kendu eta zaborretara bota zituzten. Gero tabla berriak jarri zituzten, baita lurra bernizatu ere" kontatu du. Logelak konpondu dizkiote bai, baina oraindik hutsik ditu; datorren astean zehar ekarriko dizkiote-eta altzari berriak.

**BARRUA ETA KANPOA**

Bestalde, etxe barruak ez ezik, kanpoko aldea ere konpondu egin diete Aranburuzabala kaleko bizilagunei. Adibidez, pareta handi berri bat jarri dute mendiaren kontra, eta mendi hegala bera alanbre sendozko sare batekin tapatu dute, eusteko. "Orain babestuta sentitzen gara, ez dut uste berriz halakorik gertatuko denik" adierazi du Eufemiano Rodriguez bizilagunak.

Hala ere, argi utzi gura izan du, baita ere, etxetik kanpora egon behar izan dutenean, ondo egon direla: "Eskoriatzako Udalak etxe berri bat eman zigun, eta ondo egon gara han. Denetarik zuen etxeak, guk jana bakarrik eraman behar izan dugu', adierazi du.

ESANAK

**"Orain babestuta sentitzen gara, ez dut uste berriz halakorik gertatuko denik"**

**"Lehenengo lurra kendu zuten, gero armairuak kendu eta zaborretara bota zituzten. Gero tabla berriak jarri zituzten"**

**"Udalak etxe berri bat eman zigun, eta ondo egon gara. Denetarik zuen etxeak, jana bakarrik eraman behar izan dugu. "**

**Eufemiano Rodriguez** > Etxejabea



Haurralde Fundazioko kide Edurne Irazusta GOITBko platoan, joan den astean. GOIENKARIA

Edurne Irazusta > Haurralde Fundazioko kidea

# "Osasun sexual eta ugalkorraz hitz egitean, eskubideez egin behar dugu berba"

MIRIAN BITERI > OÑATI

**Haurralde Fundazioaren eskutik, eguaztenetik egubakoitzera bitartean nazioarteko emakumeen osasun sexual eta ugalkorraren inguruko jardunaldiak egingo dituzte Arantzazun. Fundazio horretako kide Edurne Irazustak horietan jardungo dutenen gainean hitz egiteaz gain, oraindik parte hartzeko aukera dagoela jakinarazi digu.**

**Zeren gainekoak izango dira, zehazki, jardunaldiak?**

Haurralde Fundazioak urteak daramatza Gipuzkoa mailan eta herrialde pobreetako emakumeen eskubideak defendatzeko lan egiten. Eskubide horien artean, osasun arlokoak daude, eta, horren harira, jardunaldiak antolatu ditugu Arantzazun; aurretik Gasteizen ere egin ditugu antzekoak. Egungo lan ildoak aztertu eta horiek zelan hobetzeaz jardungo dugu; esaterako, nerabeen artean abortua ekiditeaz hitz egingo dugu.

Emakumeen osasun sexual eta ugalkorraren gainean hitz egitean, eskubideez egin behar dugu berba; osasun sexual oso eta atseginaz, hain justu.

**Zein da helburu nagusia?**

Arantzazun bilduko garen lagun gehienok gobernuz kanpoko erakundeetan parte hartzen dugu. Helburua da lankidetzan egiten dugun lana hobetzea. Horren harira, sare bat eratu nahi dugu, hobeto egin dezagun lan. Horretan, esperientziak eta ideiak elkar trukatu ahal izango genituzke.

**Zenbat lagun elkartuko zarete Arantzazun? Interesa dutenek parte har dezakete?**

Gutxi gorabehera, 50 lagun inguru. Besteak beste, Espainia, India, Guatemala, Mexiko eta Boliviako jendea elkartuko da. Haiek izena emanda dute aurretik. Baina interesa dutenek jardunaldietara joateko aukera dute oraindik. Etzi, eguaztenean, egingo den mintegirako ez dago plazarik; baina gainerako hitzaldietarako tokia dago oraindik. Izena emateko, Haurralderekin jarri behar dute harremanetan, 943 24 66 21 telefonora deituta.

> "Lan ildoak aztertu eta horiek zelan hobetzeaz jardungo dugu jardunaldietan"

> "Jardunaldietan izena eman daiteke oraindik, Haurralderekin harremanetan jarrita"

> "Gure gorputza guri dagokigu eta horren gainean erabakitzeko eskubidea dugu"

**Jardunaldietan Hego Amerikako hainbat herritako egoeraz jardungo duzue. Baina Euskal Herrikoa nolakoa da?**

Boliviako landa-gune bateko emakumearekin alderatzen badugu, hemengoa askoz hobeto dago. Baina Haurralden nerabeekin egiten dugu lan, eta adin tarte horretan abortu tasa handia da eta biharamuneko pastilla antisorgailu gisa erabiltzen da.

Egia da hemengo emakumeak aske garela zenbat ume izan nahi ditugun erabakitzeko; baina, aldi berean, adina atzeratzen gabiltza. Bestalde, gizonek semealaben hezkuntzan berdin parte hartzen dutela ematen badu ere, sakon aztertuz gero, oraindik desberdintasunak daudela igar daiteke. Hirugarren adibide bat jartzearren, ginekologoarenean hitzordua eskatzen dugunean eta sei hilabetera ematen digunean, emakumeari ematen zaigun garrantzia mahai gainean ari gara jartzen.

**Horren gaineko sentsibilizazioak garrantzia izango du horretan, ezta?**

Bai, hala da. Emakumeok dugun eskubide moduan plenteatu behar dugu lehenik eta behin. Indarkeria kasuetan askotan gertatzen da hori; gizonezkoak emakumearengan duen nagusitasun sexualarekin; hain justu ere. Gure gorputza guri dagokigu eta horren gainean erabakitzeko eskubidea dugu.

---

etxeko leihotik



Usoa Agirre > uagirre@goiena.com

## Mendian gora eta gora, burua galdu arte

Azken egunotan entzundakoekin badirudi Himalaia *Sálvame* programako plato bihurtu dela: honek gezurra dioela; hark ez zuela nahi izan berriz igo, ezta ordainduta ere; besteak tranpa egiten duela... Mendizaletasuna ez dira oso leku onean uzten ari Pasaban, Oiartzabal eta konpainia. Inguruan ditugun hedabide sentsazionalistek, gainera, koipe gehiago ematen diote kontuari, eta hor ari dira zeinek lortuko mendizale baten adierazpen deigarriena. Horretan Oiartzabal izan da onena; marka egin nahi du zortzimilakoak bi aldiz igota, baina markakoak izan dira bere adierazpenak ere.

> "Marka egin nahi du Oiartzabalek; markakoak izan dira esan dituenak ere"

Duela urtebete inguru hementxe idatzi zuen Goiatz Arana lankideak zortzimilakoez. Garai hartan Kangchenjungako gailurra zapaldu eta arrastaka jaitsi behar izan zuten Edurne Pasaban. 14 zortzimilakoak egiten lehen emakumea izateko lasterketa gogorrean ari da tolosarra, baina badirudi korearra aurreratu zaiola, hor ere polemika egon arren.

Ni ez naiz mendizalea, baina seguru nago mendia barrutik sentitzen dutenek ez dutela batere gustuko polemika hori, ezta tolosarraren lasterketa ere, eta gutxiago Oiartzabalek esandakoak. Norberaren bizitza arriskuan jartzen dute, baina baita besteena ere. Hona ekarriko dut berriz ere Arana lankideak urtebete dela jarritako titulua: *Zortzimilakoak egitea, zein preziotan?*

**> Izan duzue sekula gertukorik ospitalean? Seguru ez zenutela ospitalean Jose Tomas toreatzailearen osasun egoeraren adinako informaziorik jaso. Langabezia tasa handia da, baina lasai, toreatzaileak arnasa bere kabuz hartzen du-eta!**

**> Gauza batzuk ez dira aldatzen eta oraindik hor jarraitzen du nik Antzuolako eskolan ikasten nuela hasi zen telesailak, *Goenkale*-k. 3.000. atala grabatu zuten joan den egubakoitzean. Aspaldion ez dut ikusi, baina a ze meritua duten!**

---

LANA > POSTA ZERBITZUAK

## Correosko grebak ez zuen eraginik izan Debagoienean

Hiru langilek egin zuten greba: Bergaran bik eta Oñatin bakarrak

M.B. > BERGARA

Eguenerako greba zuten deituta Correosen. Debagoienean deialdi horrek ez zuen eraginik izan eta langile gehienek normal egin zuten lan; hiruk bakarrik egin zuten greba. Arrasaten jakinarazi digutenez, normal egin zuten guztiek lan; 19 lagun daude han. Bergaran, Ibargarai kalean dagoen bulegoko lau langileek ere normaltasunez jardun zuten, baina banatzaileen artean bik egin zuten greba. Oñatin, pertsona bakarrak erabaki zuen lanik ez egitea; hamar langile daude han.

**DONOSTIAN 150 LAGUN**

Greba horren bidez posta zerbitzuaren liberalizazioa salatzeaz gain, aurtengo hitzarmena ados dezatela aldarrikatu nahi dute. Horretarako Donostian deituta zegoen manifestazioan 150 lagun izan ziren.

**INGURUMENA** > HONDAKINEN KUDEAKETA

# Karlos Ormazabal: "Gipuzkoaren lehentasuna birziklatzea da"

Egubakoitzean Oñatin egindako hitzaldian, 2013an Gipuzkoako zabortegi guztiak itxiko dituztela adierazi zuen Garapen Iraunkorreko diputatuak



Karlos Ormazabal eta Lourdes Idoiaga, egubakoitzean Oñatiko kultura etxean egindako hitzaldian. GOIENKARIA

**JOKIN BEREZIARTUA** > OÑATI
Joan den egubakoitzean Oñatiko kultura etxean egindako hitzaldian, Karlos Ormazabal Garapen Iraunkorreko diputatu eta Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoko presidenteak gipuzkoarrei birziklatzeko konpromisoarekin jarraitzeko eskatu zien. Izan ere, Gipuzkoan eta, beraz, Debagoienean gehiago birziklatzen dugu Espainia eta Europarekin alderatuz: "2008an %39 birziklatzea lortu genuen, Espainiaren oso gainetik [%14], baita Europaren gainetik ere [%23]. Gehien birziklatzen duten herrialdeen taldean gaude, argi eta garbi".

Horrez gain, Ormazabalek Gipuzkoako Hiri Hondakinen Planaren ildoak azaldu zituen, 2008ko abenduan Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartutako Pidrug Aurrerapen Dokumentuan jasotzen direnak. Dokumentu horren gainean honakoa adierazi zuen: "Lapatx, Urtetas eta Sasietako zabortegiak 2013an itxiko dira. 2016an, hondakinen %60 birziklatuko dira, eta gainerakoa Zubietako Hondakinen Kudeaketa Zentroan tratatuko dute". Konpostatzeari dagokionez, esan zuen bosgarren edukiontzia edo edukiontzi marroia gradualki zabalduko dela Gipuzkoako herrietan.

**BILKETA SISTEMA, UDALEN ESKU**
Bestalde, bilketa sistemaren gainean azaldu zuen udalek erabaki beharko dutela zein sistema aukeratu: "Edukiontziak edo atez ateko sistema udal bakoitzak erabaki beharko du. Hemen eta mundu osoan beti geratzen da birziklatu ezin den soberakoa, eta horrek zabortegi edo erraustegietan amaitzen du". Foru arduradunak jakinarazi zuen atez ateko sistemak asko garestitzen duela bilketa, edukiontzien sistemarekin alderatuta. Kataluniako adibidea ipini zuen: "Hamar urte daramate atez ateko sistemarekin, eta biztanleen %4k bakarrik erabiltzen du".

Amaitzeko, gogorarazi zuen birziklatze indizerik handienak dituzten herrialdeek ere erraustegien alde egin dutela, eta zabortegien aurka.

**EPAITEGIAK**

## Oñatiko Turismo Bulegoaz epaiketa

Garapen Agentziari salaketa ipini diote lehengo lantaldeko partaide batzuek

**GOIENKARIA** > OÑATI
Etzi, eguaztena, epaiketa hasiko da Donostiako Administrazioarekiko Auzitegian Oñatiko Turismo Bulegoaren adjudikazioaren kontura. Oraingo lantaldearen aurretik Turismo Bulegoa kudeatzen zuen taldeko partaide batzuek salaketa jarri zuten Oñatiko Garapen Agentzia udal enpresaren aurka, eta epaileak tramitera onartu du haiek aurkeztutako froga guztiekin.

**GERTAKARIAK ARGITU**
Adjudikazio berria egin arte Turismo Bulegoa kudeatzen zuen taldeko partaide horiek salaketa ipini zuten lehiaketa publiko eta adjudikazio prozesuarekin ados ez zeudelako, eta eurek irregulartasunak antzeman zituztelako. Epaiketaren helburua izango da gertakariak argitzea. Tartean izango dira orduko udal arduradun batzuk: Ernesto Murgiondo Turismo zinegotzia eta Ikerne Altube Garapen Agentziako idazkaria.

**URTEURRENA** > EKIN EMAKUME ELKARTEA

# Esker on hunkigarria, Ekin sortu zutenei

Ekin Emakume Elkartearen sorrera, eta 15 urteko ibilbidea gogoan, Kulturateko areto nagusia lepo bete zen egubakoitzeko jaialdian




Marije Salterain, Marilu Ajuria eta Lurdes Uralde (loreekin) Ekinen lanean dabiltzan eta ibili diren lagun batzuekin. JOSETXO ARANTZABAL

**UBANE MADERA** > ARRASATE
Ekin elkartearen sortzaileen izenak hartu, kantu herrikoi batean txertatu, eta Kulturaten zeuden herritarrek (bereziki emakumeen) kantuan adierazi zieten, besteak beste, esker ona Ekin elkartea sortu zutenei.

Jaialdi hunkigarria izan zen egubakoitzekoa. Eta hala sentitu zuten omenduek eurek ere.

Hunkiberatasun giro hori sortzen asko lagundu zuten aretoa bete zuten kantuek. Batetik, Goikobalu abesbatzako emakumeen ahots gozo eta samurrek; eta bestetik, Miren eta Bea *Gu Bira* telebista saioko irabazleen ahots indartsuek. Ikusleen txalo zaparradak hala erakutsi zuen.

**INDARBERRITUTA**
Omenduak, beraz, gustura, baina baita Ekineko oraingo kideak ere: "Aurrera segitzeko gogoa ematen du; andreok anonimotasunean egiten dugu lan asko eta hori ikusi egin da etorri den jende ugariarekin. Beste 15 urtez jarraitzea ondo legoke, baina egoera aldatu ez den seinale ere izango litzateke".

**OMENDUEN ESANAK**

**Marije Salterain**
Sortzailea
"Belaunaldi berriei esango nieke aurrera egiteko, euskararen alde eta andreen alde. Gu euskararen alde eta andreak etxetik ateratzearren hasi ginen. Oso ondo erantzun zuten; orduan emakumeak etxean geratzen ziren-eta".

**Lurdes Uralde**
Sortzailea
"Ez genuke pentsatuko orain 15 urte sortutako elkarteak horrenbeste jende erakarriko zukeenik. Eta gainera ez genuen espero halakorik. Oso hunkigarria izan da, eta esan beharra dago beste asko ere ibili zirela lanean. Eskerrik asko guztiarengatik".

**Marilu Ajuria**
Sortzailea
"Hunkituta nago, oso; baina bereziki nago oso-oso urduri. Ez dugu merezi omenaldi hau. Beste jende askok ere egin zuen lan gurekin batera eta ez dira agertu euren izenak. Apur bat lotsatu egin naiz".

# VI. MAGIA MOSTRA

## Europako gertuko magiarik onena Elgetan

## 2010, MAIATZAK 7 - 8 eta 9

### ELGETAKO ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN

### 7 BARIKUA

**22:30 MAGIA** Prezioa: 14 €
Bazkideak: 11 €

**Alberto de Figueiredo**
Juan Tamarizen eskolako irakaslea



### 8 ZAPATUA

**22:30 MAGIA GALA**
Prezioa: 18 € - Bazkideak: 15 €

**Woody Aragon**
Gertuko kartomagia




**Miguel Gomez**
Gertuko kartomagia

**Camilo Vazquez**
Gertuko kartomagia

**Jon Zabal**
Magia komikoa



### 9 DOMEKA

**12:30 MAGIA KALEAN**
Arabako Ilusionismo elkarteko kideen eskutik





Dagoeneko sarrerak salgai. Egun guztietarako bonoa: 35 €. Bazkideek: 30 € - www.espaloia.com - Tel.: 943 78 90 85

ANTOLATZAILEAK: Elgetako Espaloia Kafe Antzokia · Asociación de Ilusionistas de Alava

LAGUNTZAILEAK: Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa · kutxa · Elgetako Udala · Goiena Komunikazio Zerbitzuak · GEO Grupo Elcoro Decoletaje, S.L.

Arizmendi ikastolak XXI. mendeko etxebizitzen inguruko jardunaldiak egin zituen joan den egubakoitzean, Arrasaten, Garaia Berrikuntza Gunean. Ekimen horretan, etorkizuneko eraikuntzaz hitz egin zuten hainbat adituk; tartean, EHUko arkitektura irakasle Rufino Hernandezek. Aurre fabrikazioak duen garrantziaz jardun zuen eskainitako hitzaldian.

**Rufino Hernandez** > EHUko arkitektura irakaslea

# "Aurre fabrikazioak bilakaera izan du eta gaur egun ondo baloratuta dago"

MIRIAN BITERI > ARRASATE

**EHUko irakasle Rufino Hernandezen arabera, aurre fabrikazioa da etxeen etorkizuna. Horren harira, gogorarazi du seriean fabrikatuta kostuak asko merkatzen direla. Horretaz gain, gaineratu du kanpotik etxebizitzak ez direla larregi aldatuko, besteak beste, gizarteak "oso txarto" hartzen dituelako aldaketak.**



Rufino Hernandez egubakoitz eguerdian egon zen Garaia Berrikuntza Gunean, etxebizitzen gaineko hitzaldia ematen. MIRIAN BITERI

**Nolakoak izango dira XXI. mendeko etxebizitzak?**

Fisikoki oso gutxi aldatuko direla uste dut. Orokorrean, gizarteak oso txarto onartzen ditu aldaketak. Gehienok azken urteotan oso gutxi aldatu diren etxebizitzetan bizi gara, eta eraikitzeko era, bitartean, asko aldatu da urte gutxitan. 30 urte daramatzat horretan lanean eta eraikuntza asko aldatu da.

Barnetik, aldaketak orain arte esperimentatu direnak baino esanguratsuagoak izango dira, eta kanpotik, berriz, aldaketa gutxi egongo dira. Aldizkarietan irteten diren eta oso ikusgarriak diren eraikinetan arreta jartzen dugu, eta uste dugu eraikinak apartekoak eta oso konplexuak izango direla; esaterako, plater hegalari itxura dutenak. Baina, jabetu behar gara eraikinen %95 oraingoak bezalakoak izaten jarraituko dutela, birgaitzerako joera gero eta handiago izango delako.

**Zer nolako materialak erabiltzen dira gaur egun eta nolakoak izango dira etorkizunekoak?**

Arlo honetan bilakaera emango da. Orokorrean, gero eta gutxiago erabiliko dira artisau-teknikak erabiltzen dituztenak. Arrazoia garbia da. Oso gustuko dugu artisautza, baina artisauak bere zigilu pertsonala inprimatzen du. Hori kalitatearen kontrolaren eta bermearen kontra doa, artisau onak eta txarrak daudelako. Guztiak onak ez direnez kalitatea bermatzeko irtenbide bakarra industrializazioa da.

**Zeintzuk dira material horiek?**

Material hidraulikoak nagusituko dira beti, metalikoak eta polimerikoak baino askoz merkeagoak direlako. Hidraulikoek gizarteak eskatzen dituen eskakizunak betetzen dituzten bitartean, naturatik erazteko eta fabrikatzeko garestiagoak diren materialek baino aukera gehiago izango dute. Ahalmen gehien duten materialak energi iturri berriztagarriak dira; hain justu ere, jatorri edo hondakin begetala dutenak. Horiez gain, birziklapenetik lortutako materialek ere harrera hobea izango dute.

**Industrializazio edo aurre fabrikazioaz hitz egiten dugunean, serie-fabrikazioaz ari gara edo eraikin bakoitzaren neurrirako aurre fabrikazioa existitzen da?**

Sistema industrializatuak aldatzen doaz historian zehar azaltzen diren hainbat faktore sartzen diren neurrian. Bere garaian, seriazioa, tipifikazioa, normalizazioa eta Cad/Cam bezala ezagutzen dena azaldu ziren.

Zer nolako faktoreak azalduko dira datozen urteotan? Horietako asko oraindik ez ditugu ezagutzen. Argi daukaguna da serie-fabrikazioa bezalako faktoreak kostuak merkatzen dituela. Dena dela, Cad/Cam prozesuak ere daude. Egun, Cad/Cam sistemaz kudeatuta dagoen zenbakiko kontroleko makina batek pieza ezberdinak egin ditzake, pieza berdinen kostu beragatik. Horrekin bezero bakoitzari dagokion produktuak egin ditzakegu.

BIRGAITZEA

**"Eraikinen %95 oraingoak bezalakoak izaten jarraituko dute, birgaitzerako joera handituko delako"**

BERRIZTAGARRIAK

**"Ahalmen gehien duten materialak energi iturri berriztagarriak dira; hain justu, jatorri edo hondakin begetalekoak "**

FORMAZIOA

**"Teknikariek formazio orokor ona dute, baina espezializatuen beharra daukagu"**

**Aurre fabrikazioa kontzeptuak konnotazio negatiboa eta behin-behinekoa izan du beti. Ikuspuntu hori aldatzen ari da arloko profesionalen artean?**

Bai. 50 eta 80ko hamarkada bitartean, panazea zen aurre fabrikazioa. Hortik aurrera, baztertua izan zen; tamalgarritzat hartzen zen. Baina, eraginkorra zela erakutsi ahal izan da eta gainerako sistemek bezala, bilakaera izan du. Eraginkorra den bitartean, ondo baloratuta egongo da.

**Zein da eraikuntza tradizionala eta aurre fabrikazioaren arteko alde handiena?**

Ez dago alde aipagarririk. Alde puntualak dira, jendeak ezin dituenak sumatu. Ni lanean hasi nintzenean, momentuan bertan egiten zen hormigoia egurrezko enkofratuekin, tokian bertan egiten eta muntatzen ziren taulekin. Gaur egun, behin eta berriro erabil daitezkeen piezak daude, tamaina handiko panelekin osatuta daudenak. Panel horiek ez dituzte langileek manipulatu behar, garabiek egiten dute hori. Emaitza bera da: hormigoia. Jendeak hori ez du igartzen.

**Eraikuntzako teknikariak formatuta daude laneko ohituretan dauden aldaketetarako eta sistema berriak erabiltzeko?**

Bai. Orokorrean, formatuta daude. Formazio orokor ona dute, baina formazio espezializatuaren beharra daukagu, industriari lotutakoa. Gradu-ondokoa espezializatua izan behar da, enpresetara eta arlo produktiboari zuzenduta dagoena. Horren bidez, sistemak eraginkorragoak izan daitezela lortuko da. Bestelako herrialdetan dagoeneko eman da eta hemen ere formazio hori eskainiko dela uste dut.




**Arritxu Barruso,** Goiena Telebistako kazetaria, Azkaraten zubisaltoa egin ondoren.

# Egin dugu salto

**Orain digitalera salto egin dugu:**

**> ANTZUOLAN**

Goiena Telebista dagoeneko digitalean:
ANTZUOLAN, ELGETAN, OÑATIN, BERGARAN, ARETXABALETAN, ESKORIATZAN, ARRASATEN ETA LEINTZ GATZAGAN.

Laster digitalean:
ARAMAION.

Goitb
Goiena Telebista
***Ikustekoa!***

## kale inkesta

# Publikatutako azken datuak entzunda, bizi dugun egoera ekonomikoarekiko kezka handitu zaizu?



**Aitor Azurmendi**
Langabea
Arrasate



**Marga Castelo**
Langilea
Arrasate



**Santiago Andres**
Langilea
Arrasate



**Loli Castelo**
Langilea
Arrasate

Telebistan esaten dutena ez dut ezertxo ere sinesten. Ez naiz ezerekin fiatzen. Baina lana gutxitu egin dela eta jende mordoa kalean dagoela ikusten da. Ni lan barik nago, eta egia esan egoerak kezkatu egiten nau.

Egia esan, ni oso ondo bizi naiz. Gainera aspaldi lan egin barik eta orain bi lanpostu ditut, beraz…Bestalde, inguruan ez dut kasu gogorrik ezagutzen. Esaten den moduan: *Mesedez, gera nadila nagoen moduan*.

Hasi zenetik kezkatu naiz egoerarekin eta orain ere hala segitzen dut. Bi alaba ditut, eta lanpostuak kolokan daude, arriskuan. Ni neu urtebetez langabezian egon nintzen iaz, eta aurten berriro hartu naute.

Kezkatu egiten nau, jende guztia moduan, baina krisia sumatzen du lan barik geratu denak; lanean gabiltzanok ez dugu igarri. Nire lanpostua seguru samar ikusten dut-eta… Berandu hasi gara lanean, baina…

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

ARRASATE
**> Guztionak diren loreak hartu eta etxera**

Askoren ahotan dabil zein politak dauden biribilguneak, lorez beteta. Bada, irakurle batek salatu gura du ikusi izan dituela herritarrak lore horiek hartzen, etxerako, "total, ipiniko dituzte berriak!", esanda. Hala gogora ekarri gura du lore horiek guztion diruekin ipinitakoak direla eta hori lapurretan egitea dela.

ELGETA
**> Domingo Iturbe kaleko farolak apurtuta**

Farola zaharrak daude ipinita Domingo Iturbe kalean, eta une honetan, kableak gordetzen dituen farolaren tapak apurtuta daude eta beste batzuk zabalik. Bera, kable guztiak bistan eta edozeinek ukitzeko moduan daude. Hori, batez ere, umeendako arriskutsua dela salatu du Elgetako guraso batek, eta mesedez eskatu gura dio Udalari, ahalik eta lasterren tapatzeko.

ARETXABALETA
**> Informazio gehiago eman beharko liekete herritarrei**

Merkataritza bultzatzeko plana egin du Aretxabaletako Udalak, eta hainbat dendek bat egin eta puntuak ematen dizkiete erosketak egiten dituzten bezeroei. Puntu horiek truka daitezke Arkupeko emanaldietarako sarrerengatik. Baina herritar askok trukatze horren berririk ez duela dio irakurle batek, eta komeniko litzatekeela informazioa zabaltzea. Dena den, egitasmoa egokia dela ere uste du, "herrian erostearren saritxoa jasotzen delako".

## usteak uste

**Arritxu Barruso**

# Hiriburuetan bakarrik?

Zapatua, maiatzak 1, langileen eguna genuen; langileen eskubideak aldarrikatzekoa. ASTELEHENEKO GOIENKARIAn baina, ezin izan dizkiogu lerro gehiegi eskaini. Debagoienean ez dugu aldarrikapenik entzun, ez ikusi. Donostian, Bilbon edota Gasteizen egindako manifestazioen oihartzuna iritsi zaigu, baina horixe izan da guztia. Ausartuko nintzateke esatera, gainera, manifestazio horien oihartzunari indarra falta zitzaiola. Zapatuan gure ibarreko herrietako dendak itxita zeuden eta uste dut horixe izan zela langileen egunaren aztarna bakarra.

Maiatzaren 1a jai-egun soil bat bilakatzen ari delakoan nago. Manifestazio eta aldarrikapen guztiak hiriburuetara eramateak ere ez dut uste horretan laguntzen duenik.

## zorroztailea



**Joxemari Muxika**

# Elkarte gastronomikoetan euskara

"Euskaltzale andana bildu zen atzo, Lizarrako (Nafarroa) zubi erromanikoan Nafarroan euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatzeko egindako elkarretaratzean. Horren bitartez, egun Nafarroan euskaraz bizitzeko dauden «zailtasunak» salatu zituzten".




***Euskaraz bizitzeko eskubideaz***
Berria > 2010-05-01

Arrasateko elkarte gastronomikoak euskararen garapenarekin berriro arduratzen ari direla jakin dugu. Askok hainbat ekimen eginak dituzte elkartean euskara martxan jartzeko, baina ahalegina ez da erraza. Izan ere euskara baztertu eta gaztelaniaz funtzionatzeko inertzia handia dago toki guztietan.

Kontuan izatekoa da euskara oso baztertua zegoela sortu zirela elkarte asko, Frankoren diktadura garaitik baitatoz. Garai famatu haietan bezala gaur egun ere euskarak etsai gehiegi ditu, batzuk aurka jarraitzen dutelako eta beste batzuen lehentasunetan ez dagoelako.

Elkarteko bazkide asko euskara dakitenak izan arren, ezin izan dute euren hizkuntza toki egokian ezarri, eta egoeraren kontzientziazio horrek ardurak hartzea ekarri ditu, ekimena berritzea eta indartzea. Euskarak gaur egun eskoletan tokia hartu badu eta lantegietan lekua egiten ari bada, orain arte ezinak jan izan du elkarteetako ekimena.

Zer egin elkarte gastronomikotako funtzionamenduan euskararen erabilera gaztelaniaren mailan jartzeko? Hori izan da ekimena beregain hartu duen AEDko lantaldeak egin duen galdera. Lantalde honen helburua euskarak gaztelaniaren pareko erabilera izatea da, beste gune batzuetan lortzen ari den bezala. Elkartearen funtzionamendurako euskara ezinbestekoa ez izan arren, beharrezkoa da pertsona koherenteak izateko eta bazkide guztien elkarbizitza askea eta atseginagoa izateko.

> **"24 elkarteetatik 17k euskalduntzea garatzeko lan egiteko hitza eman eta arduraduna izendatu dute. Elkarteen %71k ekin dio lanari"**

Jakina da euskara gaztelaniaren pare jartzea ez dela kolpean lortuko den zerbait. Baina guri tokatzen zaigu bidea zuzendu eta ondorengoentzat hizkuntza askatasuna garatzeko modua martxan jartzea.

SUDCeko arduradunekin batera egin den ahalegina hasi da fruituak ematen. Arrasaten lantalde honekin harremanetan dauden 24 elkarteetatik 17k euskalduntzea garatzeko lana egiteko hitza eman eta horretarako arduradun berezia izendatu dute. Hasiera oso ona da, elkarteen %71k ekin baitio lanari. Hori ikusi eta itxaropentsu dabiltza lantaldekoak beste zazpi elkarteek bide bera har dezaten.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonooa • 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Asteburuko erredakzioaren arduraduna** Ubane Madera **Erredakzioa** Mireia Bikuña, Miren Arregi eta Arritxu Barruso **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Oxel Arrieta eta Imanol Soriano **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria**

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**> BERGARA**
Kiroldegiko taberna berriro lehiaketara, lehen deialdian ez delako inor aurkeztu **> 17**



**> OÑATI**
Corpus bezperako proba Euskal Herriko txapelketa izango da, bestetan baino herrikoiagoa **> 18**



**> ELGETA**
Espaloia antzokiak gertu dauka VI. Magia Mostra maiatzeko bigarren aste bukaerarako **> 20**



Bertso sorta kolektiboen lehiaketan momentu oso dibertigarriak eskaini dituzte aramaioarrek.



Aramaioko laukotea pentsakor.

ARGAZKIAK: LIERNI ALTUNA

**BERTSOLARITZA** > ARABAKO KUADRILLA ARTEKO TXAPELKETA

# Zapatuko finalean Aramaio bi aldiz igoko da oholtzara

**ARAMAIO FINALEAN**
Bi kategorietan finalera iritsi dira Aramaioko bertsolariak

**GIROA HERRIAN**
Aramaioarrek gertutik jarraitu dute herriko bertsolarien lana

**MAIATZAK 8**
Zapatuan Gasteizko Landatxo kantxan jokatuko da finala

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Arabako kuadrilla arteko bertso txapelketan lan bikaina egin dute aramaioko bertsolariek. Bi lehiaketa egin dira batera: bat-bateko txapelketa eta bertso sorta kolektiboen lehiaketa. Bada, bietan ere aramaioarrak finalera iritsi dira.

**BAT-BATEKO TXAPELKETA**

Aramaiok talde indartsua eta eskarmentu handikoa izan du bat-bateko txapelketan: Andere Arriolabengoa, Manex Agirre, Xabier Igoa eta Iker Agirre.

Bederatzi taldek hasi zuten lehia, baina Aramaioko laukoteak poliki-poliki guztiak menderatu eta finalera iristea lortu du. Arerio bakarra geratzen zaio orain; Gasteizko Kakiturri-Ehari taldea. Zapatuko finalean Juan Mari Juaristi, Asier Otamendi, Rikardo Gonzalez de Durana eta Felipe Zelaieta bertsolariak izango dituzte aurrez aurre Landatxoko taula gainean.

Aramaioko laukotea finalaren eguna iristeko irrikan dago: "Gogotsu gaude. Buruz buruko txapelketetara ohituta gaude baina hau taldekakoa da. Horrelako lehiaketa egiten den lehen aldia da. Jakin-min handia daukagu eta esperientzia berria probatzeko gogoarekin gaude", azaldu digu Andere Arriolabengoak. Laukoteak egindako lanarekin pozik azaldu da: "Bagenekien gauzak ondo eginez gero finalera iristeko aukera genuela; gauzak ondo joan dira, lan polita egin dugu eta finalera iritsi gara".

**BERTSO SORTA KOLEKTIBOA**

Bertso sorta kolektiboen lehiaketan hamalau laguneko taldeak ordezkatu du Aramaio; horietako bat da Xabier Agirre: "Oso talde polita osatu dugu. Batzuk bertsozaleak, beste batzuk ez, beste batzuk kantua gustuko dutenak... Bertsoak aurrez prestatu eta ondoren, trikitixa eta perkusio kaxa batekin lagunduta jendaurrean abesten ditugu". Talde honek ere gasteiztarrak izango ditu aurrez aurre zapatuko finalean; Martin Ttipia eta Aldapazaleak taldeekin batera jokatuko dute-eta finala. Oraingo honetan Araba izango dute bertsotan egiteko gaia.

Koadrilen arteko txapelketak giro polita sortu du herrian eta partehartzaileek diote herritarren babesa sentitu dutela: "Jende asko mugitu du lehiaketak eta herritarrek txapelketa jarraitu dute. Kalean gelditu egiten gintuen jendeak eta saioen inguruan galdetu", dio Agirrek.

**EGUN OSOKO FESTA**

Egun osoko egitaraua antolatu dute zapaturako. Goizetik hasiko dute festa. 12:00etan bertso poteoa egiteko hitzordua egin dute Gasteizko Hala Bedi tabernan. Ondoren, 14:00etan, bazkaria egongo da eta bertso saioak 17:30ean hasiko dira.

Datorren zapatuan ere aramaioar asko hurbilduko da seguruenik Landatxora. Gauzak ondo ateratzen badira, gainera, egongo da zer ospatu. Aramaiok *dobletea* egin dezake finalean.

ESANAK

**"Finala jokatzeko gogotsu gaude; horrelako lehiaketa egiten den lehen aldia da eta jakin-min handia daukagu"**
Andere Arriolabengoa

**"Herrian giro polita sortu da txapelketa honekin. Kalean jendeak gelditu eta saioen inguruan galdetzen zigun"**
Xabier Agirre




Ezkerrean, Arrasateko Arrostaitz dantza taldeko gazteak Oñatiko plazan behera Zubikoara, goizeko dantza emanaldiaren aurretik; eskuman Zubikoako emanaldian. MIREN ARREGI

**DANTZA** > DANTZARI EGUNA 2010

# Jauzi eta brinko ibili ziren bost talde Oñatiko dantzari egunean

Goizean Zubikoa kiroldegian eta arratsaldean herriko plazan, Debagoieneko Dantzari Egunean izan ziren bost dantza taldeek emanaldi eder askoak eskaini zituzten

**MIREN ARREGI** > OÑATI
160 dantzaritik gora eta guztira bost dantza talde izan ziren, zapatuan Oñatin egin zuten Debagoieneko Dantzari Egunean: Soraluzeko Urrats, Antzuolako Oinarin, Arrasateko Arrostaitz eta Lore Gazteak, eta Oñatiko Oñatz. Bostok dantzan ipini zuten kalea lehenik, eta Zubikoa kiroldegia ondoren. Izan ere, euria egiteko arriskua zegoela ikusirik, emanaldiak estalpean egitea erabaki zuten. Aurten oñatiarrek antolatu dute Debagoieneko Dantzari Eguna; Oñatz dantza taldeak, zehatz. Euskal dantza tradizionalak, beraz, babesleku izan zuen zapatuan Oñati, eta herritarrek ere erantzun zuten; dantzak Zubikoa kiroldegian izanik ere, jende dezente joan zen bai goizean eta baita arratsaldean ere, bailarako dantza taldeen emanaldiak ikustera.

**AGURRA, DANTZA TALDE GUZTIEK**
Zapatuko jaian parte hartu zuten dantza talde bakoitzetik ordezkari bik eman zioten hasiera goizeko emanaldiari, guztiek batera, aurreskua dantzatuz. Dantza, kantua eta umore ona nagusitu ziren Zubikoa Kiroldegian elkartu ziren dantzari zein ikusleen artean. Orduan gozatu genuen, Bizkaiko mutil dantzaz, Igitai dantzaz, Arratiaz, edota Lesakako dantzez, beste batzuen artean. Giro ederrean igaro zen goizeko emanaldia eta handik, guztiak batera, Etxe Aundi jatetxera egin zuten bazkatzera.

Arratsaldeko emanaldia, aldiz, herriko plazan egin zuten; jende asko batu zen dantza taldeen emanaldia ikustera, eta ederto pasatu zuten bertan bildutakoek. Arratsaldean Gipuzkoako mutil dantzak, Jaurrieta, edota Iribas bezalako dantzak eskaini zituzten eta amaitu, Larrain dantzarekin amaitu zuten. Ikusleak ere animatu ziren Larrain dantza egitera eta horrela, giro ederrean eman zioten bukaera aurtengo Debagoieneko Dantzari Egunari.

Oñatz dantza taldeko kideak oso pozik agertu ziren egunak utzitakoekin; aurreikuspenen arabera joan zen eta guztia, eta dantzari eta herritarrak gustura gelditu zirelako.

**JAIAK** > 'XAXAU' BIRUSA

## 'Xaxau' birusa eskutik hartuta, 40 bat lagun elkartu ziren jaiei begirako spota grabatzeko

Mendekoste jaiak gainean direla-eta, Txosna batzordeak herrian giroa berotuko duen spota grabatu zuen egubakoitzean



Barrenkalen, plazara bidean, *Xaxau* birusa eta herritarrak. JOSETXO ARANTZABAL

**MIREN ARREGI** > BERGARA
Ez ziren jaiak egubakoitzean Bergarako Barrenkale kaleko giroak hori islatzen bazuen ere. Hain justu, Txosna batzordeak deituta, *Xaxau* birus xaxatia eta 40 bat herritarrek, jaiei begira, spota grabatu zuten.

Mendekoste jaiak gainean direla-eta, Txosna batzordeak herrian giroa berotu dadin gura du; iazko jaietan aurkeztu zuten *Xaxau* birusa bueltan da berriro, eta hura izango da herritarrak festetarako gertatzeko ardura izango duena. Egubakoitzean egin zutena, *Xaxau* birusaren spota izango denaren grabazioa izan zen. Spot hori, tabernetan eskaintzen hasiko dira jaiak hasi baino pare bat aste lehenago eta hori bakarrik ez, jaietako txosna egitaraua ere bideoarekin aurkeztuko dute. Spota grabatzeko deialdiari erantzun zioten herritarrek, nahiz eta helduen parte hartzea falta izan zen. Ea ba herritarrak behar beste xaxatzen diren!



GOIENKARIA

## Atxorrotx Egun laburra, atzo

Igo eta jaitsi. Horixe egin behar izan zuten atzo, domeka, Atxorrotx Egunean parte hartu zuten gehienek, eguraldi lainotsu eta petralaren eraginez. 13:00etarako bertan ipinitako taberna desmuntatu ere egin zuten jende gutxiegi zegoelako. Bien bitartean, baina, talde polita elkartu zen Atxorrotx mendian.

**JAIAK** > SAN ANDRESKO JAIAK

# Bertatik bertara egindako jaiak, San Andresen

San Andresko bizilagunekin batera kaleko eta inguruko bisitariak ere ibili dira asteburuan



Herri bazkari jendetsua egin zuten karpapean zapatuan. JOSETXO ARANTZABAL

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Gogor egindako lanaren fruitu emankorrak agerian geratu dira asteburuan San Andresko jaietan. Akaso nahi baino jende gutxiago ibili da, baina ibili direnak gustura asko ibili dira.

Kopuruak ez dira batere makalak izan: 150 lagun bazkari herrikoian, adibidez, "karpak uzten duen lekua", Aitor Guridi auzo alkatearen esanetan.

**AUZOKOAK BERTAKOAK**

Eta osterako ekitaldietako emaitzekin ere pozik zebilen Guridi: "Ahalegindu gara ekitaldietako batzuk (ipuin kontalaria, magoa, kontzertuak, buruhandiak...) auzokoek bertakoek egindakoak izaten, eta nik uste dut horrek jende gehiago erakarri duela. Eta uste dut, baita ere, auzotik zerbait ateratzea lortzen bada, plusa dela hori. Bestalde, auzoko jaiak izan arren, kaletarrak eta ingurukoak ere oso ondo hartzen ditugu, eta batzuk etorri dira".

**JAUNARTZEETARA EGOKITU BEHAR**

Hori bai, Guridi alkateak aitortu zuen pena txiki batekin geratu direla aurten: "Komunioak tokatu dira auzoko jaiekin batera, eta adibidez, Corazon de Encina 80 urtetik gorakoei ematen diegun lunchera ezin izan dira etorri izena eman zuten askok. 40-50 elkartu gara eta bestela 60-70 bat elkartuko ziren, Horrez gainera, umeendako gauza batzuk ere aldatu egin behar izan ditugu, komunioetara egokitzeko".

**LAN HANDIA ATZETIK**

Kontuak kontu eta eguraldia egunotan baino freskoagoa izan arren, san andrestarrek jaien berotasuna izan dute gorputzean asteburuan. Eta horregatik eskerrak eman gura izan dizute, besteak beste, guztia antolatzen ibili den Guridi auzo alkateari: "Berak egiten duena ezin du edozeinek egin. Beti dago auzorako lan mordoa egiten. Besteok egin beharra izango bagenu, ez zen halako jairik irtengo, ezta gutxiago ere!"

ZELA IKUSTEN DITUZU SAN ANDRESKO JAIAK? PARTE HARTZEN DUZU?



**Itziar Zubillaga**

"Jendea ikusten da, baina gehiago behar da eta jendeak gehiago parte hartu behar du. Bestalde, laguntza gehiago baleude, hobe. Herriko jaiak ondo daude, baina auzokoak gorde egin behar dira".



**Eduardo Ortuzar**

"Iazko antzerako partaidetza ikusten nabil. Ahalegina egiten da gauzak ondo irteteko, eta badoaz irteten. Guk urtero parte hartzen dugu; jan eta edan, argazkiak atera... Giroa ipini (barre)".



**Aitor Ezkurra**

"Gero eta gehiago kostatzen da halakoak mantentzea, jendea kanpora joaten delako eta ekintzak egotea ona da. Atzean ahalegin handia dago. Umeekin eguneko ekintzetan parte hartzen dugu ".



**Pablo Gomez**

"Asko gustatzen zait halako jaiak egotea hemen auzoan. Gu izatez ez gara hemengoak, baina ahal dugunean etorri egiten gara. Errioxakoak gara baina Erguin auzoan bizi gara".



**Karmele Perez**

"Auzokoak hemen geratzen gara jaietan, bestela kaleara joaten gara. Hemen jende asko ikusten da, taulan daudenak auzokoak izatea luxua dela pentsatzen dut, horrek ere erakarri du jendea".

## Belaunaldi arteko etena, Arantzen artean

Arantzazuko amak izen bera duten 300 Arantza, Arantxa edo Arantzazu alaba inguruan izan zituen atzo, Arantzen topagunean. Gazteenak (Arantza Manterola - Donostia - ) 6 urte zituen. Nagusienek, berriz, 84 (Arantxa Gofinondo - Bermeo -, eta Miren Arantxa Kozkorrotza -Lekeitio -). Gero 35 urtetik gorakoak ziren gehienak. Tarteko gazte eta ume txikiak faltan igarri zituzten: "Moda da. Gaur egun izen berriagoak, sonoritate handiagodunak aukeratzen ditugu: Naia, Maddi...".



ARANTZA EGOSKOZABAL

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
2010eko maiatzaren 3a

**HERRIGINTZA** > AUZO ELKARTEAK

# Emasan, San Andresi begira ezkutuan lanean diharduten emakumeak

Duela hamar urte ekin zion Emasan elkarteak auzoari begira hainbat ekintza antolatzen

30 bazkide dira, eta San Andreseko jaietan euren eskulanak erakutsi dituzte



Emasan elkarteko kide batzuk, San Andreseko jaietarako erakusketa prestatzen, auzoko alkatetzaren egoitzan. J.B.

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Amaitu dira San Andres auzoko jaiak. Aitor Guridi auzo alkateak Emasan elkarteko emakumeak goraipatu ditu, dioenez, euren lanik gabe "ezinezkoa" litzatekeelako jaien egitaraua aurrera eramatea. Elkarteko kideak ez dira harrokeriaz mintzatzen, baina Cari Dominguez elkarteko presidentearen aurpegiko keinuak aintzat hartuta, argi dago Guridi ez duela ezer asmatu.

Carmen Zubillaga elkarteko bazkideak argi eta garbi utzi du: "Auzoan jendea ez da ezertarako mugitzen, eta gero edozertaz kexatzen dira". Hala, axolagabekeriaren desertuan bada oasi bat; Emasan da haren izena.

**DENETARIKO IKASTAROAK**

Duela hamar urte hasi zen egun Emasan izena duen elkartearen ibilbidea. Emakumeendako aisialdi eskaintza ugaritu eta elkargune bat sortzea helburu, 2009ko irailean eskuratu zuten elkarte izaera. Izan ere, hainbat urtetan egoitza barik izan dira; borrokan egin behar izan dute egoitza lortzeko. Azkenean lortu dute egoitza batek ematen duen egonkortasuna; orain Errebueltan daude, Euskal Herrian Euskaraz-en ondoan. Egun 30 bazkide dira.

Denetariko ikastaro eta hitzaldiak egin izan dituzte: eskulanak, pintura, dantza... Honakoa dio Zubillagak: "Hainbat ekintza antolatu izan ditugu eta horietatik gehienak inoren laguntzarik gabe atera ditugu aurrera". Bada, ekintza horien emaitza San Andreseko jaietan izan da ikusgai, auzo alkatetzan izan den erakusketan. Azkenik, Dominguezek elkartera hurbiltzeko deia egin die emakume arrasatearrei: "Auzoari begira jarduten dugun arren, edonorendako zabalik daude gure ateak". Ezkutalekutik irten da Emasan; ziur aurrerantzean euren berri izango dugula.

DATUA

**10**

**URTE INGURU 'BORROKAN'**

Emasanek 2009ko irailean hartu zuen elkarte izaera. Baina duela 10 urte hasi ziren elkartzen, eta egoitza bat lortzeko borrokatzen.

ESANAK

**"Auzoari begira jarduten dugun arren, auzokoa ez den edonorendako zabalik daude gure ateak"**

**Cari Dominguez** > Emasan elkarteko presidentea

**"Hainbat ekintza antolatu izan ditugu eta gehienak inoren laguntzarik gabe atera ditugu aurrera"**

**Carmen Zubillaga** > Emasan elkarteko bazkidea

txaloak eta txistuak


J.B.

## Ziklogenesia begi bistan dago oraindik

Irakurle batek erredakziora deitu du esanez San Kristobaleko hilerriko harresia oraindik konpondu barik dagoela, ziklogenesiaren ondorioz. Joan den otsailaren 28an eman zen denboralea, eta irakurleak dio badela garaia, gutxienez, hondakinak espaloitik kentzeko. Ziklogenesiaren ondorioak oraindik begi-bistan daude, hortaz.

**OBRAK**

## Maala eta San Frantzisko biribilguneak, gauez itxita

**J.B.** > ARRASATE

Udalak jakinarazi duenez, maiatzaren 3tik 7ra –biak barne– itxita egongo dira Maala eta San Frantziskoko biribilguneak. Asfaltatze lanak egingo dituzte, eta ahalik eta oztopo gutxien sortzeko gauez egingo dituzte lanak: 22:00etatik 06:00etara. Lanen iraupena murrizten saiatuko dira.

**GARIBAI ZABALIK EGONGO DA**

Aipatutako ordutegian Musakolatik erdialdera datorrenari Oberreka edo Etxe Txikiak kalea erabiltzea gomendatzen dio Udalak. Bestalde, San Frantzisko biribilgunean lanean dihardutenean Garibai kalea zabalik egongo da. Eta azkenik, Pablo Uranga auzoan zirkulazioaren norabidea aldatu egingo dute. Udalak sortu ahal daitezkeen eragozpenengatik barkamenak eskatu gura die herritarrei aldez aurretik.

> ABAROA

### Erretiratuei egingo dieten omenaldirako sarrerak salgai daude

Abaroak maiatzaren 29an egingo die omenaldia erretiratuei. Bazkarirako eta SUDC elkarteak antolatzen duen zozketarako txartelak salgai daude honezkero, maiatzaren 21era arte. Txartelak hartzeko: astelehenetik eguenera, 18:00etatik 19:30era eta egubakoitzean, 18:00etatik 19:00etara. Bazkide txartel eguneratua aurkeztu beharko da.

> PINTURA

### Mila Carballoren margolanak ikusgai, Harresi aretoan

Maiatzaren 14an erakusketa berria ikusi ahalko da Harresi aretoan. Izan ere, Mila Carballoren margolanak erakusgai jarriko ditu Udalak hilaren 30era arte. Honakoa izango da ordutegia: astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara; eta zapatu eta jai egunetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.



Bederatzi film laburren artean Huheziko sei ikaslek egin dute *Zorion Hutsa* ikusi ahalko da. Irudian, filmeko une bat. GOIENKARIA

**KULTURA** > ZINEMA

# Goi mailako bederatzi film labur ikusi ahalko dira hilaren 6an

## Topaguneak antolatutako 'Laburbira' zirkuitua AEDk ekarriko du Arrasatera; Amaian, 20:30ean.

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Urteko euskarazko ikus-entzunezko ekoizpena ezagutarazi eta herrietako kultur eskaintza aberasteko helburuz, Topagunea elkarteak antolatu duen *Laburbira* film laburren zirkuitua Arrasatera helduko da maiatzaren 6an. AEDk antolatuta bederatzi film labur ikusi ahalko dira. Debagoienean beste geldialdi bat ere egingo du, Aramaion. Topaguneak zazpigarren urtez antolatu du zirkuitua, eta aurten hartu du izen propioa: *Laburbira*.

2009an ekoiztutako bederatzi film labur batzen ditu aurten. Antolatzaileen esanetan, aurten ere "ahalegina egin da ibilbide luzeko egileak eta egile berriak kontuan izateko". Hala, Telmo Esnal, Koldo Almandoz edo Arkaitz Basterra bezalako zuzendari ezagunen lanak ikusi ahalko dira, baita oraindik hain ezagunak ez diren baina etorkizun oparoa duten beste batzuen lanak ere: Estibalitz Ariz, Itziar Faido eta Urko Mauduit, besteak beste.

Esandako moduan, maiatzaren 6an izango da emanaldia Arrasateko Amaia antzokian, 20:30ean hasiko dira.

**Fran Martinez** > Pez Kao antzerki taldeko kidea

# "Gure antzezlanean torturatzailearen rola aldatu dugu, haren atzean ere istorio bat dagoela erakutsi; finean, inuzente hutsa da"

**J.B.** > ARRASATE

**Antzezlan berezia ikusteko aukera izan zen atzo, domeka, gaztetxean: *Pedro y el capitan*. Zaragozako Pez Kao antzerki taldearen bisita izan genuen; Mario Benedettik idatzitako antzezlan bakarra taularatu zuten Ricardo Ibañez eta Fran Martinez antzezle zaragozarrak. Azken horrekin egin dugu berba, antzezlanaren gainean.**



Pez Kao taldearen antzezlaneko une bat. GOIENKARIA

**Duela bost urte Euskal Herrian izan zineten bestelako proiektu batetan mugilduta. Zergatik bueltatu zarete?**

Elorrio eta Durangon izan ginen; orduan umorezko esketx laburrak antzezten aritu ginen. Bada, *Pedro y el capitan* borobildu genuenean Euskal Herria itzultzeko aukera paregabea zela ikusi genuen. Hala, Elorriko lagun batekin harremanetan jarri eta haren laguntzaren bitartez lortu dugu Arrasateko gaztetxera heltzea. Gogo bereziak genituen hona bueltatzeko.

**Benedettiren obraren egokitzapen askea dela diozue. Zein ukitu eman diozue?**

Obrak torturatuaren eta torturatzaile baten arteko bizipenak kontatzen ditu eta guk tortura ikuspuntu fisikotik baino, psikologotik landu dugu. Torturatzailearen rola aldatu dugu, hau da, torturatzaileak atzean bere istorioa duela erakutsi. Finean, torturatzailea ere inuzente hutsa da.

**Rolak trukatzen dira, beraz.**

Hala da. Istorioak aurrera egiten duen heinean, torturatzailearen alde gizatiarra azaleratzen doa.

Abantailaz betetako kluba!
Goiena kluba
APIRILEKO IRABAZLEAK
Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: *kluba@goiena.com*
Kuota: 45 euro

SASKIBALOIRAKO SARRERAK
Lagun Aroren partidurako sarrerak.
LAGUN ARO SAN SEBASTIAN GIPUZKOA BASKET
IRABAZLEA
Miren Anduaga Kortabarria
Antzuola

ESAIT-EKO TERMIKO BERDEA ETA BISERA
ESAIT-eko termiko berdea eta bisera.
esait
IRABAZLEA
Nerea Garai Kortabarria
Arrasate

UMEENTZAKO PUZZLEAK
Ikastolen Elkarteko umeentzako puzzleak
Ikastolen Elkartea
IRABAZLEA
Marga Zabaleta Lamariano
Arrasate

EUSKAL SELEKZIOKO ZIRA
Euskal Selekzioko zira
EKFB Euskal Selekzioa
IRABAZLEA
Haritz Biain Ormazabal
Oñati

SARI NAGUSIA
APIRILA-EKAINA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
GAU BAT TXOPEBENTA LANDETXEAN



• Tel. 94 625 49 23 / 629 45 50 79
• Basetxeta Auzoa.
Gautegiz-Arteaga (Bizkaia)
• *www.nekatur.net/txopebenta*
• *www.toprural.com*

Maiatzean 20 urte beteko ditugu;
Estatuko lehenengoak izan ginen.

**AISIALDIA** > JARDUN

# Bertso-giroa eta umorea egubakoitzeko bertso eskoletan

2002-2003 ikasturtean sortu zuten Bergarako bertso eskola; gaur egun, bertso eskolez gain trikiti eta dantza eskolak ere ematen dituzte

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA
Jardun euskara elkarteko bertso eskolako gaztetxoak Eibarren izan ziren joan den domekan. Gipuzkoako bertso eskolen arteko topaketan izan ziren; hain zuzen, seigarren edizioan.

Gaur egun Jarduneko bertso eskolan 20 bat lagun dabiltza. Bertso eskolak bi talde ditu, nagusiena bat eta haurrena bestea. Haurren taldean hamar lagun dabiltza; eta horiek izan ziren Eibarrera joan zirenak domekan.

**NOIZ SORTU ZEN BERTSO ESKOLA?**
Jardunek 2002-2003 ikasturtean jarri zuen martxan Bergarako bertso eskola. Euskararen inguruan dabilen elkartea izanda, euskara bultzatzea zen helburua; baina, baita "Bergaran bertsozaletasuna berpiztea eta bertsozaleen transmisioa ziurtatzea". Hori da Jarduneko arduradunek adierazi dutena.

Gaineratu dute: "Bergaran bertsozaletasuna apaltzen zegoela ikusita, ohitura eta zaletasuna berpizteko bi bertso eskola martxan jartzea erabaki genuen: helduen eta haurren bertso eskolak, hain zuzen", dio Jarduneko Maitane Arizabaletak.

Helduen bertso eskolarekin herriko eta herritarren bertsozaletasuna berpiztea eta sendotzea da helburua. "Herriko bertso-giroa, bertso-grina berpiztu eta sendotu nahi ditugu nagusien eskolekin", diote Jardunekoek.

Baina, helduen artean bertso zaletasuna egoteko, ezinbestekoa da lana txikitatik egitea. Hala, Haurren bertso eskola sortzea erabaki zuten. "Beharrezkoa da etorkizuna sendotzea eta horretarako haurrekin lan egin behar dugu. Haurrak haurren bertso eskolan hasi eta heldunean bukatzea da asmoa", azaldu dute Jardunekoek.

Aurten, adibidez, Haurren bertso eskola izan da San Joxepeko aste kulturalean, Erramuzapatu bezperako bertso saioan, Jarduneko ekitaldietan eta Gipuzkoako bertso eskolen egunean.

**ESTI ALBERDI IRAKASLEA**
Bertsozale elkarteko Esti Alberdi da Bergarako bertso eskolako irakaslea. Bera arduratzen da nagusien eta gazteen taldeez.

Eskolak egubakoitzetan izaten dira; haurrek ordubeteko saioa izate dute, 17:15etik 18:15era; nagusiak, ostera, 19:30ean elkartzen dira. Eskolak izaten dira Arrizuriagan, Jarduneko lokalean. Bertso eskola ondo pasatzeko leku aproposa izaten da, bertan soberan daude-eta irria eta umorea.

**HIZKUNTZA LANTZEKO MODUA**
Egubakoitz arratsaldeko plan "ezin hobea" izatez gain, lagun berriak ezagutu eta, besteak beste, hizkuntza kantuan lantzeko modua da bertso eskola.

**TRIKITI ESKOLAK**
Jardunek bertsoez gain trikiti eta dantza eskolak ere baditu. Gaur egun, soinua ikasten 32 lagun dabiltza eta panderoa ikasten, ostera, 43 lagun.

Dantza eskoletan bi talde egin dituzte; bi taldeak kontuan hartuta 20 lagun dabiltza eskolan.



Apirilaren 25ean Eibarren egin zuten topaketan gazte ugarik parte hartu zuen . BERTSO ESKOLA

**txaloak eta txistuak**



JESUS MARI BARRUTIA

## Araneta eta Azpileta arteko jarlekuen egoera tamalgarria

Araneta eta Azpileta artean dauden jarlekuak oso egoera txarrean daude; horren adibide da irudiko jarlekua. Leku horretan lagun asko ibiltzen da paseoan, batez ere garai honetan. Bizilagun batek bidalitako kexa da. Dio jarlekuak erreta daudela eta beharrezkoa ikusten duela jarlekuak txukuntzea paseoan dabiltzanak jesarri ahal izateko.

**JAIAK** > MENDEKOSTEAK

## Goitibehera lasterketan izena emateko azken eguna maiatzaren 17a izango da

Maiatzaren 22an izango da goitibehera lasterketa; 12:00etan hasiko da eta San Martzialen behera egingo dute

**A.E.** > BERGARA
Dagoeneko Bergarako Udalak gertu du aurtengo Mendekoste jaietako egitaraua. Egitarau zabala prestatu dute, eta berrikuntzak ere badaude. Aurtengo berrikuntzetako bat goitibehera lasterketa izango da.

**SAN MARTZIALEKO BIDEAN**
Mendekoste-zapatuan izango da txapelketa, maiatzaren 22an. Lasterketa jokatuko da San Martzialeko bidean, bidegurutzean behera, hain zuzen, 12:00etan hasita.

**KASKOA ETA ARROPA EGOKIA**
Goitibehera txapelketa bergarar guztiei zuzenduta dago. Goitibeherak egiteko baldintzarik ez dute jarriko; baina hori bai, parte-hartzaileek motorreko kaskoa eta arropa egokia eraman beharko dute. Era berean, parte hartzeko beharrezkoa da izena ematea maiatzaren 17a baino lehen kultura etxean (943 77 91 60).

Lasterketaren ondoren hainbat sari banatuko dituzte: 16 urtetik gorakoen artean, onenak 300 euro eroango ditu; 12-16 urte bitartekoen artean onenak, 150 euro; eta, emakumeek gidatutako goitibehera originalenak 100 euro eroango ditu.

> ERRETIRATUAK

## Gorputza eta espiritua zaintzeko hitzaldia San Joxepen

Erretiratuen elkartean izango da hitzaldia bihar, martitzena, 17:30ean. Erabilera askotariko aretoan egingo du hitzaldia Ana Atientzak.

Gaia izango da: *Terapias alternativas para el cuidado del cuerpo y el espiritu*. Atientzak hainbat gomendio emango ditu hitzaldian.

> JENDARTEA

## Ipintzako ikasleek dirua batuko dute zapatuan, bidaiarako

Ipintzako ikasleek ikas bidairako dirua ateratzeko asmoz pintxoak jarriko dituzte salgai San Martin plazan datorren zapatuan.

Umeendako jolasak egongo dira, saskia zozketatuko dute eta pintxoak salduko dituzte. 10:30etik 13:30era egongo dira ikasleak plazan.



Bi ume Tindufeko (Aljeria) kanpaleku baten. GOIENKARIA

**JENDARTEA** > ELKARTASUNA

# Udan neska-mutiko sahararrak etxean hartzeko dei egin dute

## Bubisher elkarteak abiarazi du kanpaina eta harrera horien gaineko azalpenak emateko batzarra egingo du hilaren 13an

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA
Saharaaren aldeko herriko Bubisher elkarteak ume sahararrak udan etxean hartzeko kanpaina abiarazi du. Hori horrela, interesa izan dezaketen guztiendako batzar informatiboa deitu dute maiatzaren 13rako, eguaztena. Kultura etxean izango da, 20:00etan.

**BESARKADA SOLIDARIOA**
Elkartasun proiektu horren helburua da haur horiei beste errealitate bat ezagutzeko aukera ematea.

Horrekin guztiarekin, oporrok izan nahi dute Bubisherreko kideen esanetan: "Neska-mutikoendako arnas bidea, errefuxiatuen kanpalekuetan bizi dituzten baldintza gogorrak kontuan izanda, eta horrekin batera, bi herrien arteko besarkada solidarioa".

**ETXEAN, BI HILABETEZ**
Harrera kanpaina bi hilabetekoa izango da aurten ere, uztailaren 10etik irailaren 10era, gutxi gorabehera; modu horretan neska-mutikoei eman nahi zaie aukera udako oporrak Aljeriako Tindufeko errefuxiatuen kanpalekuetatik kanpo pasatzeko.

Umeok 7 eta 12 urte bitartekoak dira; Tindufeko errefuxiatuen kanpalekuetan jaiotakoak dira eta bizi ere han bizi dira familiarekin. Erbestealdi luzea dihardute han, oso baldintza gogorretan: janari, osasun eta hezkuntza gabezia handiak dituzte eta udan, 50 graduko tenperatuta jasaten dute eta zero azpitik, neguan. Gainera, nazioarteko laguntza, oro har, gero eta eskasagoa dela aurreratu dute Bubisherreko kideek eta horrek are zailagoa egiten duela erbestealdia.

**UDALA** > ZERBITZUAK

# Kiroldegiko taberna berriz aterako dute lehiaketara

## Lehen deialdian ez da inor aurkeztu eta udalbatzak berriz onartu ditu baldintzak

**M.B.I** > BERGARA
Labegaraietako kiroldegiko taberna eta kirol eremuen kontrola zein garbiketa enkantera ateratzeko baldintzak onartu zituen udalbatzak asteleheneko osoko bilkuran Gobernu taldearen, EAJren, PSE-EEren eta EAren aldeko botoekin. Otsailean ere atera zuten enkantera taberna hori baina lehiaketara inor aurkeztu ez denez, bada, berriz onartu behar izan dituzte baldintzok, osoko bilkuran.

**BALDINTZAK**
Kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da, urtero luzatzeko aukerarekin, gehienez bederatzi urtez. Bestalde, gehienezko iraupen osoa hamar urtekoa izango da.

Nahi duten pertsona guztiak aurkeztu ahal izango dira enkantera eta parte hartzeko, 400 euroko behin behineko fidantza jartzea derrigorrezkoa izango da.

Lizitaziorako gehienezko kopurua urteko 18.000 eurokoa izango da –BEZ barne– eta kopuru hori gainditzen duen proposamenik ez dute kontuan hartuko.

Prozedura ireki horretan parte hartzeko baldintzak kontsultatu ahal izango dira Kirol Zerbitzuan, 09:00-13:00 ordutegian. Eta *www.bergara.net* helbidean ere eskuratu ahal izango dira.



Labegaraietako kiroldegi sarreran dago taberna. GOIENKARIA



MUSIKA ESKOLA

# Musika Eskolako irakasleak, aktore egun batez

Martitzenean *Leopoldo untxia musikaren herrialdean* ipuin pedagogikoa antzeztu zuten Musika Eskolako irakasleek herriko haurrendako. 5 eta 7 urte bitarteko 400 bat neska-mutikorendako antzeztu zuten, sei emanalditan. Ipuinaren istorioan erabat murgildu eta Leopoldo untxiaren bila jardun zuten neska-mutikook eskolan barrena. Izan ere, Musika Eskola osoa antzoki bilakatu zen.

Goiko irudian ipuin pedagogikoa antzeztu zuten irakasleak ageri dira, antzezlanerako mozorrotuta.

## oharrak

UDALA
**> Pazkoetan barrakak jartzeko lehiaketa deitu du Udalak**
Maiatzaren 18tik ekainaren 2ra arte "kanposantu ondoko lursaila feria, jostaleku eta postuekin okupatzeko" kontratua egiteko lehiaketa antolatu du udalbatzak. Maiatzaren 12ko 12:00ak dira aurkezteko azken eguna. Informazio gehiago eta baldintzak udaletxeko Idazkaritzan eskura daitezke.

UDALA
**> Pazkoetan San Martin plazan jarriko duten txosna, lehiaketara**
Pazkoetan Udalak San Martin plazan jarriko duen txosna ustiatzeko lehiaketa deitu du. Interesatuek instantzia bidez aurkeztu behar dute eskaria eta mugaeguna da maiatzaren 11ko 12:00ak.

AISIALDIA
**> Uztaileko udaleku musikaletako izenematea zabalik dago**
Maiatzaren 7ra arte dago zabalik, Musika Eskolan, 15:30-19:30 ordutegian. Prezioari dagokionez, 115 euro dira –105 euro Musika Eskolako ikasleendako– eta diru hori sartu behar da honako kontu zenbakian: 2101 0070 81 0012342622. Informazio gehiagorako jo Musika Eskolara edo deitu 943 76 57 80 zenbakira.

ERRETIRATUAK
**> Irteera Errenteriara eta txangoa Gaztelara, San Joxeperekin**
Mendi irteera antolatu dute Errenteriara maiatzaren 12rako. 07:00etan abiatuko dira autobus geltokitik. Ibilaldia eta gero Beti Bizkor jatetxean bazkalduko dute. Izenematea zabalik dago. Bestalde, *Gaztelako paisaiak* delako txangoa egingo dute irailaren 18tik 24ra. Horrako izenematea ere zabalik dago.

KINTADA
**> 1949an jaiotakoen urteko bazkaria maiatzaren 8an**
Tartufo jatetxean bazkalduko dute eta urbano zerbitzua egongo da. Izena emateko deitu 650 85 38 57 eta 666 49 04 62 zenbakietara.

KIROLA > LASTERKETA

# Corpus bezperako proba Euskal Herriko txapelketa izango da

Lasterketa herrikoiagoa egingo dute, eta dagoeneko izenemate epea zabalik dago

Atzerrriko korrikalari beltzak eta Chema Martinez ez dira irteera puntuan egongo



Iazko parte-hartzaileetako batzuk plazara sartzen. GOIENKARIA

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Peter Kiruik (2008 eta 2009), Chema Martinezek (2007), Sara Kerubok (2008), eta Joan Aiyabeik (2007) irabazi dute Corpus bezperako nazioarteko proba azken urteotan. Zesernay Tadesse ere 10.000 metroko munduko errekorra apurtzen ahalegindu zen 2006an. Maila handiko korrikalariak guztiak. Horiek, baina, historia dira Antxintxiketan taldeak antolatzen duen proban. Aurten, atzerriko korrikalariek ez dute parte hartuko proban, ekainaren 5ekoa Euskal Herriko txapelketa izango da-eta.

Antolatzaileek proba herrikoiagoa egiteko gogoa zuten. "Aspaldian genuen probari izaera aldatzeko gogoa. Aldaketarekin korrikalari gehiago etorriko direla espero dugu", esan digu Jesus Arregik.

**KILOMETROKO DENBORA**

Proba herrikoiagoa izango bada ere, gutxieneko denborak jarri dituzte lasterketaren hirugarren eta seigarren kilometroetan. Puntu horietatik pasatzerakoan gutxieneko denbora egiten ez dutenak kanporatu egingo dituzte. Antolatzaileek egindako kalkuluen arabera, gizonezkoek 3.45 minututik beherako denbora egin beharko dute kilometro bakoitzeko; eta emakumezkoek, 4.15etik beherakoa.

Bestalde, ibilbidean ez dago aldaketarik. 10 kilometrokoa izango da eta, postetxe aurrean irtenda, plazan bukatuko dute proba. Dena den, ehundik gora korrikalarik izena ematen badute, San Silbestre probako ibilbidea erabiliko dute.

**IZENEMATEA**

Corpus bezperako proban parte hartu gura dutenek izena eman dezakete dagoeneko. *www.herrikrossa.com* webgunean dute probaren eta sarien gaineko eta izena emateko bete beharreko orriak.

## Euskal selekzioaren aldeko eguna ekainaren 5ean egingo dute

Euskal Selekzioaren Aldeko Iritzi Taldeak (ESAIT) XII. Euskal Selekzioaren Eguna ospatuko du Oñatin ekainaren 5ean. Urteroko festa da eta herririk herri antolatzen dute. Corpus bezperako lasterketaren aurretik askotariko ekitaldiak egingo dituzte herriko plazan. Ikurrina igo ondoren, aurreskua dantzatuko dute eta jokoak egingo dituzte umeendako; besteak beste, euskal kirolak landuko dituzte. Gainera, Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazo taldekoek musikarekin alaituko dute Foru plaza. Festan parte hartu gura dutenekin herri bazkaria egingo dute.

Azkenik, neska-mutikoendako lasterketak egingo dituzte Kale Barrian eta Atzeko kalean zehaztutako ibilbidean.

### oharrak

HEZKUNTZA

**> Txiki-txokon izenemate epea zabalik**

Txiki-txoko haurreskolan izena emateko epea zabalik dute gaurtik hilaren 14ra arte, 2009an eta 2010ean jaiotako haurrendako. Orain izena eman arren, irailean, urrian edo azaroan hasiko dituzte eskolak. Interesatuak eskolatik pasa daitezke izena emateko 09:30etik 11:30era.

Bestalde, bihar ate irekien eguna egingo dute 17:30etik 19:30era, eskola barrutik erakusteko.

DEIALDIA

**> 1961. eta 1962. urteetan jaiotakoen afaria**

Maiatzaren 8an bilduko dira Etxeberria jatetxean. Interesatuek 943 78 13 93 (Santi) edo 943 78 34 66 (Jesus) telefonoetara dei dezakete.

DEIALDIA

**> 1969ko kintoendako deialdia**

Maiatzaren 29an bilduko dira Etxeberria jatetxean. 25 euro aurreratu beharko dituzte Euskadiko Kutxako 30350005300051040936 kontuan.

DEIALDIA

**> Odol-ateratzea egingo dute maiatzaren 7an**

Oñatiko odol emaileen taldeak beste ateratze bat egingo du maiatzaren 7an, 18:30etik 20:30era. Oporren aurreko azken ateratzea ekainaren 11n egingo dute.

BIRZIKLAPENA

**> Etxeko olioa batuko dute maiatzaren 8an**

Puntu Berde Mugikorra plazako aparkalekuan egongo da maiatzaren 8an, 09:00etatik 13:00etara. Etxeko olioa eta etxetresna elektriko txikiak batzen dituzte, besteak beste.

Bestalde, etxeko traste zaharrak eguenetan biltzen dituzte.

JENDARTEA > ERRETIRATUEN ASTEA

# Erretiratuen bazkarirako txartelak salgai daude, gaurtik

Pake Lekun eros daitezke, hamar eurotan

M.B. > OÑATI

Pake Leku erretiratuen elkarteak urteroko aste berezia egingo du hilaren 10etik 16ra. Astea bukatzeko bazkaria egingo dute kiroldegian, hilaren 16an. Gaurtik, bazkarirako txartelak salgai jarriko dituzte erretiratuen elkartean: egubakoitzera arte eros daitezke, 18:30etik 20:00etara arte, hamar eurotan.

Egun horretan meza nagusia egingo dute parrokian, 12:00etan. Jarraian, kiroldegiko pilotalekuan omenaldia egingo diete herriko bi erretiraturi. Ondoren, Udal Musika Bandak eta Oñatzeko dantzariek emanaldi bana egingo dute. Bazkaldu ondoren, bertso saioa eta dantzaldia egingo dituzte.

**HITZALDIA**

Bazkariaz gain aste osorako ekintzak antolatu dituzte. Astelehenean, hilaren 10ean, Aloña abesbatzak, Loli Ordoki bakarlariak eta Xabier Ugarte gitarra-jotzaileak kontzertua egingo dute Santa Ana aretoan, 18:30ean. Martitzenean, berriz, hitzaldia egingo dute, 17:00etan. Etxean gaudenean suaren kontra nola babes gaitezkeen azalduko dute.

**IRTEERA SAN MARTINERA**

Eguaztenean irteera egingo dute San Martinera, eta han egingo dute hamarretakoa. 10:30ean irtengo dira erretiratuen elkartetik. Antolatzaileek oinetako erosoekin joatea aholkatzen dute. Irteeran parte hartu gura dutenek txartela hartu beharko dute erretiratuen elkartean egubakoitza baino lehen. Egun berean zinema emanaldia egingo dute, 17:00etan, kultura etxean.

Eguenean eta egubakoitzean, bingo joko berezia eta merienda egingo dituzte, hurrenez hurren.

KIROLA > ZIKLISMOA

# Gazteendako Arantzazuko igoera maiatzaren 15ean

Natra Zahor enpresaren parean hasiko dute proba, 16:30ean

M.B. > OÑATI

Gazte mailako txirrindulariendako 42. Arantzazuko igoera maiatzaren 15ean egingo dute. 16:30ean abiatuko dira, Natra Zahor enpresaren parean jarriko duten irteeratik. Handik zuzenean gora egingo dute 9,3 kilometro egiteko. Igoera gogorra da, desnibel handiko aldapak daude-eta. Lasterketa Sindika hotelaren ondoan bukatuko da.

**DEBAGOIENDARRAK**

Gazte mailako ziklista onenak bilduko dira Oñatin, guztira, 90 bat txirrindulari. Tartean, Bergarako Sumofic eta Aretxabaletako Dorletako Ama taldeko ziklistak eta Iker Mugartza eta Aitor Umerez oñatiarrak.

Arantzazuko igoerako errekorra Unai Osak ezarri zuen 1993an (22.27).

**ESKORIATZA** > INGURUMENA

# Biodibertsitatearen alde lan egin eta babesteko adierazpena sinatu du udalbatzak

Udalak egingo dituen lanetan eta kontratatutako zerbitzuetan biodibertsitatea hartuko dute irizpide

**MIRARI ALTUBE** > ESKORIATZA

Biodibertsitatearen urtea izendatu dute Nazio Batuek 2010a. Hori kontuan izanda, joan den eguazteneko ohiko osoko bilkuran biodibertsitatearen adierazpen instituzionala onartu zuen Eskoriatzako udalbatzak aho batez.

"Biodibertsitateak krisian jarraitzen duela" esan zuen Pedro Lasagabaster alkateak, eta "gobernu eta erakundeek hainbat erabaki hartu arren ez dela nahikoa" gaineratu zuen. Hori horrela, "toki mailako neurriak hartzea ezinbestekoa" dela esan zuen eta "neurri horiek erabakigarriak" izango direla iragarri. Gainerako kideak bat etorri ziren adierazpenarekin eta osoko bilkuran bertan sinatu zuten.

**HARTUTAKO KONPROMISOAK**

Honako konpromisoak hartu ditu Udalak: hirigintza planifikatzerakoan alderdi erabakigarrien artean izatea biodibertsitatearen zainketa, bereziki espezie ahulen babesean; babestutako natura-gune berriak sortzearen alde egin eta herri ondasun bihurtzea; biodibertsitatearen babesa irizpidetzat hartzea produktuak erosi eta zerbitzuak kontratatzerakoan; gune berdeak irizpide horiekin kudeatzea; eta bukatzeko, herritarrak informatu eta sentsibilizatzea.



Udalbatzako kideak biodibertsitatearen gaineko adierazpena onartu ondoren. MIRIAN BITERI



Ramon Eraña, Fortu Lopez eta Jesus Mari Herrasti, Logroñoko plazan. SARDAN

**ARETXABALETA** > IBILALDIA

# Valvanerada ibilaldia egin dute hiru aretxabaletarrek

Logroñoko plazatik Valvaneda santutegira dauden 63 kilometroak 11 orduan egin dituzte

**M.A.** > ARETXABALETA

Errioxako odol emaileen elkarteak antolatutako 33. Valvanerada ibilaldia egin dute hiru aretxabaletarrek. Fortu Lopez dagoeneko 10. aldiz joan da, Jesus Mari Herrasti *Sardan* hirugarren aldiz eta Ramon Erañarendako lehena izan da. Beteranoek eta hasiberriak, denek gustura bukatu zuten.

**BUKAERA GOGORRA**

Joan den aste bukaeran izan zen ekitaldia. Hilaren 24 ilunkeran (20:00) Logroñoko plazatik irten eta Valvaneda Ama Birjinaren santutegirako bidea hartu zuten 1.805 lagunek, tartean hiru aretxabaletarrok. 63,2 kilometroko ibilaldia da eta aretxabaletarrek 11 ordu eta 10 minutu behar izan zituzten: "Gau ederra egin zuen eta oso gustura joan ginen, geratu ere egin barik", dio *Sardan*-ek. Azken 14 kilometroak dira okerrenak, Anguiano herritik aurrera, aldapa gora dagoelako: "Eta batez ere azken bostak dira gogorrak. Fortu eta biok nekatuta ailegatu ginen baina Ramon ederto zegoen", esan du *Sardan*-ek.

Datorren urtean bueltatzeko asmoarekin etorri da hirukotea baina ordurako aretxabaletarren taldea osatu gura dute: "Bost lagun behar dira taldea osatzeko; hala Aretxabaleta izena eroango genuke", diote.

> ESKORIATZA

## Zabalik dago uztaileko udaleku irekietan izena emateko epea

Uztailaren 5etik 23ra bitartean Eskoriatzan egingo dituzten udaleku irekietan parte hartu gura duten ume eta gaztetxoek oraintxe eman behar dute izena. Bi tokitan eman daiteke: Tortolis ludotekan –astelehenetik egubakoitzera, 16:00-20:00– eta kultura etxean –egunero, 09:00-13:00–. Azken eguna maiatzaren 14a da eta epez kanpo jasotako eskaerarik ez dutela onartuko jakinarazi dute antolatzaileek. Aurtengo udalekuetan 1998 eta 2006 bitartean jaiotako neska-mutikoek har dezakete parte.

Bestalde, uztaileko udaleku horietan begirale izan gura duten gazteek oraindik zabalik dute izena emateko epea. Ludotekan edo kultura etxean utzi behar dituzte curriculumak eta azken eguna egubakoitza da, hilak 7.

> ARETXABALETA

## Gaixoen udako egonaldietarako eskaerak egiteko epea

Etxean bizi diren gaixo eta ezintasunak dituztenendako udako egonaldiak antolatzen hasi dira Gizarte Zerbitzuak, haien senideek atseden har dezaten. Uztail, abuztu eta irailerako dira aldi baterako egonaldi horiek eta eskaerak orain aurkeztu behar dituzte Gizarte Zerbitzuetan. Hona datak: uztaileko egonaldia eskatzeko azken eguna, maiatzak 14; abuztuko egonaldia eskatzeko, maiatzak 28; eta irailekoa eskatzeko, ekainak 11.

Plazak izendatzeko orduan lehentasuna emango diete urtean zehar egonaldirik egin ez dutenei. Era berean, gaixoaren mendekotasun maila ere hartuko dute kontuan.

Bestalde, psikogeriatrikoan lekua behar dutenek abuztuko egonaldiaren programan sar daitezke Txindoki egoitzan (Lazkao).

**ARETXABALETA** > KULTURA

# Donostia inguruan izan zen auto zirkuituaren gaineko argazkiak ikusgai gaurtik Arkupen

Zinemak agur esan arren, udazkena arte 'Mugaldekoak' euskal filma eskainiko dute gaur (16:30) eta bihar (19:30)

**M.A.** > ARETXABALETA

Gaur, maiatzak 3, beste erakusketa bat zabalduko dute Arkupen. Argazki erakusketa da, 1920 eta 1930eko hamarkadetan Lasarte, Andoain eta Hernani inguruan egon zen auto zirkuituari eskainitakoa. Kutxako Fototeka Fondoko 85 argazkik osatzen dute. Donostia udako opor-leku garrantzitsua zela jabetuta auto-lasterketa bat antolatzera animatu zen orduko alkatea. Hala, auto zirkuitua egin zuten hiriaren inguruan eta Europako zirkuiturik garrantzitsuena izatera iritsi zen.

**UMEENDAKO IKUSKIZUNAK**

Bestalde, udazkena arte –uztailean izan ezik–, ez dute filmik emango Zaraia aretoan. Denboraldiari agur esateko *Mugaldekoak* euskal filma izango dugu gaur eta bihar. Egubakoitzean, ostera, *Harri Irratixe* bakarrizketa saioa errepikatuko du Goio Arrietak (22:00). Eta zapatuan, hilak 8, *Belarrira xuxurlatuz* ipuina eskainiko die umeei Vanessa Gonzalez kontalariak, liburutegian (11:30).

Maiatzaren 23an, domeka, *Mozart gogoan* saioa egingo du Opera Divertimento taldeak. Hilaren 25ean eta 26an musika eskolako kontzertuak izango dira eta hilabetea bukatzeko, hilaren 30ean, *Ali, haren amona eta alfonbra hegalaria* ikuskizuna eskainiko die umeei Txalo taldeak.

IRIARTE
Umeen denda
•
Helduen lentzeria

Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA



Alberto de Figueiredo magoak zabalduko du VI. Magia Mostra, maiatzaren 7an. GOIENKARIA

**ELGETA** > KULTURA

# Espaloiak gertu dauka VI. Magia Mostra

Maiatzeko bigarren aste bukaera magikoa izango da Elgetan; gainera, ekainera bitartean ez da antzerki zein musika emanaldirik faltako

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Espaloia Kafe Antzokian gertu dute maiatzeko eta ekaineko programa. Maiatz hasieran urteko hitzordu garrantzitsuenetarikoa bihurtu den Magia Mostra egingo dute. Barikuko irekiera emanaldia, maiatzaren 7an, Alberto de Figueiredo magoak egingo du. 1999a ezkero Juan Tamarizen eskolako irakaslea da eta elementu askorekin egiten du magia.

Zapatuko gala, maiatzaren 8an, Jon Zabal magoak aurkeztuko du. Haren aginduetara arituko dira, besteak beste, Woody Aragon, Camilo Vazquez eta Miguel Dominguez. Gertuko kartomagia egiten dute gehienek, eta, adituen esanetan, Europa mailan gertuko magian momentuan dauden profesional onenak egongo dira Elgetan.

Domekan, maiatzak 9, magia kalera irtengo da eta Arabako Ilusionismo Elkarteko kideen eskutik hainbat trikimailu, joko eta adar jotze egingo dituzte magoek Elgetako kaleetan eta tabernetan. Festa 12:30ean hasiko da.

Sarrerak dagoeneko salgai daude. Emanaldi bakoitza 15 euro da, 12 bazkideendako. Emanaldi guztiak ikusteko bonua, berriz, 35 euro da; 30 bazkideendako.

**ANTZERKIA ETA MUSIKA**

*Ate joka* antzezlana ekarriko dute Espaloira Txalo taldeko kideek maiatzaren 21ean. Musika hitzorduak ere ez dira faltako. Gruppo Sanjuan, Or2tan, Iñaki Plaza, Jon Garmendia eta Bide Ertzean Elgetako antzokian emanaldia egitekoak dira hurrengo bi hilabeteotan.

**HERRIXA DANTZAN**

Arrakasta handia izan du, eta ekainera bitartean beste bi saio egingo dituzte; maiatzaren 30ean eta ekainaren 27an. Azken horretan Jainaga eta Narbaiza trikitilariekin egingo dute erromeria.

**LEINTZ GATZAGA** > ERLIJIOA

## Atzo ezkero domeketako mezak Dorletako santutegian esango dituzte, azaroa bitartean

Leku kutuna da santutegia Leintz bailarakoendako eta jende ugarik hautatzen du ezkontzeko; aurten, bederatzi inguruk

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Gatzagako San Milixan parrokian domeketan esaten dituzten mezak Dorletako santutegian esaten hasi dira. Maiatzarekin batera hasten dute udako ordutegia eta azaroaren 1a bitartean izango dira mezak Dorletan. Ordutegiak ez du izango aldaketarik (12:30), eta, domekero legez, Martin Mendizabal frantziskotar fraidea etorriko da Arantzazutik.

**EZKONTZAK ETA TXIRRINDULARIAK**

Dorletako santutegia oso leku kutuna da Leintz bailarakoendako. Hori horrela, inguruko herrietako bisitariak sarri izan ohi dira domeketako meza horietan. Eta jende askok hautatzen du ezkontzeko. Iaz bederatzi inguru izan ziren, eta aurten beste horrenbeste izango direla jakinarazi du santutegiko arduradun Tere Aranburuzabalak. Horiez gain, zilarrezko eta urrezko ezteiak ospatzera ere "bikote asko datozela" dio.

Dorletako Ama, gainera, txirrindularien zaindaria da eta horiek ere gogoratzen dira santutegiarekin aurkezpen ekitaldiak egin eta eskerrak emateko orduan.

**ARAMAIO** > JAIAK

# Esaldi lehiaketa deitu dute San Martin jaietarako

Esaldiak aurkezteko epea bihar arte dago zabalik (martitzena); Aramaioko produktuen otarrea eramango du irabazleak

**E.M.** > ARAMAIO

Uztaileko San Martin jaiei begira esaldi lehiaketa deitu du Aramaioko Udalak. Nahi duten herritar guztiek parte hartu ahal izango dute eta partaideek jaiekin zerikusia duten esaldiak aurkeztu beharko dituzte. Esaldiak aurkezteko epea martitzenera arte, maiatzaren 4ra arte dago zabalik eta interesatuek udaletxera jo dezakete. Aurkezten duten gutun-azalaren kanpoaldean zera idatzi beharko dute: *San Martin jaietako esaldi lehiaketa*. Irabazlearendako sari bakarra izango da: Aramaioko produktuz osatutako otarrea eramango du esaldi onenaren egileak.

**JAI BATZORDEAREN BILERA**

Jaiekin jarraituz, Jai batzordeak badihardu antolaketa lanetan eta dagoeneko hainbat bilera egin dituzte. Hain zuzen ere, eguaztenean, maiatzaren 5ean, beste bilera bat egingo dute udaletxean, 18:00etan. Gaiarekin interesatutako herritar guztiei parte hartzeko dei egin die Jai batzordeak. Parte-hartze zabala lortzea da batzordearen helburuetako bat.



Gazteak Bañera parkean jolasean. GOIENKARIA

**ANTZUOLA** > DEIALDIA

## Armarriaren gaineko txostena aurkeztuko dute

Bihar, martitzena, izango da bilera, 18:30ean, Olaran etxean

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ANTZUOLA

Bihar, martitzena, aurkeztuko du Udalak armarriaren gainean adituek esandakoekin egindako txostena. Bilera irekia izango da: herritarrak eta herriko taldeak daude gonbidatuta. 18:30ean izango da bilera, Olaran etxean.

**BALORAZIOA**

Martxoan zehar egin zituzten hitzaldietan oinarrituta dago txostena. Historian eta armarrietan adituek esandakoa jaso eta balorazioa egin du Udalak. "Gaia kokatu dugu, eta martxoko hitzaldietan jasotakoaren balorazioa egin, eta ondorioak atera ditugu", azaldu du Pedro Iturbe alkateak.

**NABARRALDEREKIN BAT**

Udalak, berriz, proposatuko du armarritik 12 kanoiak kentzea; baina ez da "proposamen zehatza" izango. "Hau da, bat egiten dugu Nabarraldek eskatutakoarekin, kanoiak kentzearen alde gaude, baina ez dugu zehaztu zer sartu kanoien lekuan", dio alkateak. Bilerak balioko du herritarren iritzia jasotzeko.

Iturbe alkateak azaldu du armarritik 12 kanoiak kentzeko ze prozesu jarraitu beharko litzatekeen: "Udalbatzak gehiengo osoz onartu beharko luke armarria aldatzea; gero, Foru Aldundiari jakinarazi beharko zaio hartutako erabakia; eta Eusko Ikaskuntzaren aldeko txostena ere beharrezkoa da. Txosten hori dagoeneko badaukagu, prozesua hasi zenean eskatu genuen-eta".

Gogoratu beharra dago martxoaren 9an, 16an eta 23an izan zirela hitzaldiak. Ondoren, mahai-ingurua egin zuten GOITBn.

# Kirola



**> SASKIBALOIA** Aloñak ez du igoera lortu matematikoki baina lehen moduan daude > 25



**> ESKUBALOIA** Bergara ezinean ibili zen, zazpi goleko errenta izan arren > 23

**> ALBERTO NARRO** Unibertsitateko Estatuko kenpo txapelketa irabazi zuen; Landako (Araba) erreformatorioan ere egiten du lan > 26





Ruben Nogueiras oñatiarra bihurgunean. JOSETXO ARANTZABAL




Sinca autoak BMWa aurreratu zuen atzetik irten arren. JOSETXO ARANTZABAL



Zabaletaren autoaren barrualdea. JOSETXO ARANTZABAL




Auto bat errepidetik irten da zaleen begiradapean. JOSETXO ARANTZABAL

**AUTO LASTERKETA** > UDANAKO IGOERA

# Lehen txandan gurpila zulatu arren, Zabaleta azkarrena

**PODIUMA** Juan Carlos Samperio eta Angela Vilariño igo ziren podiumera bergarararrekin

**KOLPEAK** Euriaren erruz hainbat auto errepidetik irten ziren, baina ez zen ezusteko larririk egon

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Euskal Herriko txapelketako lehen proba jokatu zuten atzo Udanan. Euriari aurre eginez, Aitor Zabaleta bergararrak egin zuen denbora onena Udana gaineko helmugan. Haren atzetik sailkatu ziren Juan Carlos Samperio eta Angela Vilariño. Oñatiarren artean onenak izan ziren Ruben Nogueiras laugarren eta David Ardions seigarren.

**GURPILAK AUKERATZEKO ORDUAN**

Goizean, autoen egiaztapenak egin zituzten. Guztira 42 gidarik eman zuten izena, baina helmugara 37 heldu ziren.

Proba hasteko entrenamendurako manga egin zuten gidariek ibilbidea ezagutzeko, 14:30ean. Irteera Udana hasieran dagoen zerrategian jarri zuten, eta helmuga Udana gainean. Guztira, 4,460 kilometro zituzten aurretik.

Entrenamenduaren ondoren hasi zituzten bi txanda ofizialak. Gidari guztiek arazo bera izan zuten gurpilak aukeratzerako orduan; hain zuzen ere, errepide lehorrerako edo bustirako gurpilak aukeratu.

Tarteka euria egin zuen, eta horrek asko zaildu zuen gidarien lana. Gainera, autoek izandako txapa istripuek olioa isuri zuten errepidean.

Horri guztiorri aurre eginez, gidariek zuten onena eman zuten. Aitor Zabaletak arazoak izan zituen lehen txandan. Gurpila zulatu zuen. Hori horrela, sailkapenean aurrea hartu zioten Samperiok eta Vilariñok. Bergararrak bazekien bigarren txandan arriskatu egin behar zuela proba irabazteko eta ez zuen hutsik egin. Azkarrena izan zen, halako probetan bi txandatan egindako denbora onena hartzen duteeta kontuan sailkapena egiteko.

**ANTOLATZAILEAK POZIK**

Antolatzaile taldekoak oso pozik zeuden amaieran. "Gidariek lan ona egin dute. Ikusleek ere erantzun dute. Iaz baino ikusle gutxiago egon da, baina egiten zuen eguraldia ikusita... Bestalde, kolpeak egon dira, baina ezusteko larririk ez", esan zigun antolaketa taldeko Mikel Altunak.

**Aitor Zabaleta** > Irabazlea

## "Gurpila aukeratu ezinik ibili naiz, olioa, ura... zeuden errepidean"

**M.B.** > OÑATI

**Aitor Zabaleta bergararra izan zen azkarrena Udanako igoeran. Ibilbidea arriskutsu zegoela eta, gurpilak aukeratzerako orduan arazo asko izan zituela esan digu.**



XABIER URTZELAI

**Gustura garaipenarekin?**

Bai, oso gustura. Kontuan hartuta lehen txandan gurpila zulatu dudala, ezin naiz kexatu.

**Euriarekin errepidea arriskutsu zegoen?**

Bai. Gainera, istripu batzuk egon dira eta olioa zegoen errepidean. Horrek arazo asko sortu dizkit gurpilak aukeratzerako orduan. Euria tarteka egin du. Azkenean, bigarren txandarako, errepide sikurako gurpilak erabili ditut.

**Euskal Herriko txapelketako lehen proba zen. Denboraldi hasiera.**

Bai, hala da. Ikusi beharko dugu nola dihoakigun denboraldia. Iazko garaipena errepikatu nahiko nuke.

**ZIKLOTURISMOA** > BERGARAKO 5+3 TXIRRINDULARI MARTXA

# Mela-mela eginda baina oso gustu

Euria izan zen protagonista, bereziki goizeko lehen orduan. Horrek parte-hartzea espero baino txikiagoa izatea ekarri zuen.

257 txirrindularitik, bi emakumek besterik ez zuten parte hartu. Hori izan zen pena nagusia



Igoera kronometratuaren bukaerara iristen, txirrindulari taldea Gorlan.

JOSETXEO ARANTZABAL

**MIREN ARREGI** > BERGARA

Atzo goizeko zortzietan ez zen giro bizikleta hartu eta 96 kilometroko ibilbideari ekiteko; zeru ilunak ez zuen etxetik irteteko gogorik ematen; baina, hala ere, han agertu ziren, bizikleta gainean goiza pasatzeko gertu, 257 lagun (batek baino gehiagok egin zuen etxera, behin inskripzioa egin ostean).

Lokatza Txirrindulari taldeak Bergarako 5+3 zikloturista martxa antolatu du lehenengo aldiz. "350 txirrindulari inguru espero genituen, baina eguraldiak ez du lagundu; hala ere, pozik gaude lasterketaren nondik norakoekin" zioen Lokatzako kide Unai Asurmendik. 96 kilometro eta bost mendate, bata bestea baino gogorragoa, gainera: Udana, Aztiri, Liernia, Mandubi eta azkenik Gorla.

**TARTE KRONOMETRATUA**

Lasai ekin zioten txirrindulariek pedalei eragiteari. Bazekiten ibilbide gogorra zutela aurretik eta gainera, lehia ez izatean, ez zuten zertan ahalik eta azkarren ibili behar. Helburua disfrutatzea zen, eta hala egin zuten gehien gehienek. Bergarako Agorrosinetik irten eta Oñatira egin zuten han Udanan gora Aztiriarako bidea hartzeko. Lehenengoak Udana gainera iritsi eta ia ordu erdira iritsi ziren azkenak. Esan daiteke gune horretan lehenengoaren eta azkenaren artean distantzia handia zegoela. Hala ere, argi zegoen parte hartzaile gehienak ez zirela lehiatzera joan. Giro onean eta berriketan agertu ziren euretako asko Udana gainera.

Baina, horretaz gain, antolatzaileek gura izan zuten txirrindulariei euren burua proban ipintzeko aukera ere eman, eta azken mendatea, Elosukoa, kronometratua izan zen. Indartsu, parte hartzaileek gogor ekin zioten Gorlako kronoigoerari. Hain zuzen ere, kronometratutako proba hori denbora gutxienean gauzatu zuena izan zen probako irabazlea, eta saria, Debagoienean gelditu zen; Oñatiko Igor Kortabarriak 22 minutu eta 52 segundo behar izan zituen Azkoititik Gorlara igotzeko, marka ederra benetan! 50 segundo gehiago behar izan zituen bigarrenak, Zumarragako Xabier Soraluzek, eta lehenengo emakumezkoak, Eneritz Vesgak, Igor Kortabarriak baino 39 minutu gehiago. Esan behar da, 257 parte-hartzailetik bi emakume besterik ez zirela animatu, eta horrek ere zer pentsatua eman die antolakuntzako kideei.

Bestetik, balantze ekonomikoari dagokionean, esan behar da Lokatza Txirrindulari taldeak ez duela irabazirik atera, are gehiago, galerak izan dituela. "Espero baino jende gutxiago etorri da eta klubarentzako ez dugu diru-sarrerarik lortu. Sortutako zuloa Lokatza eta Bergarako Zikloturisten elkartearen artean estaliko dugu" adierazi zigun antolatzaile Asurmendik. Hala ere, balorazio orokorra positiboa da: "Lehen harria ipinita dago, eta zalantzarik ez, datorren urtean ere antolatuko dugula" gaineratu zuen.

## INKESTAK



**Andoni Korta**
Azpeitia

"Bizikletan asko ibiltzen gara eta gaur igande goiza pasatzera etorri gara Bergarara. Bidea ezagutzen nuen eta egia esan oso gogorra egin zait. Lasai ekin diot, baina bukaeran zeharo hustu naiz. Zati kronometratuan dena eman dut eta gustura gelditu naiz. Pena bakarra, eguraldia izan da ".



**Bernardo Arantzabal**
Arrasate

"Errepidea bustita zegoen eta hori izan da eragozpenik handiena. Hala ere, primeran ikusi dut nire burua eta beraz, gustura nago egindakoarekin. Elosun gora, ez dugu debora kronometratu. Ez naiz lehiatzera etorri, goiza pasatzera eta batez ere disfrutatzera etorri naiz".



**Eneritz Vesga**
Zestoa

"Neska gutxik hartu dugu parte eta hori pena bat da. Gainera, ez gaude gizon gehienen maila berean, eta atzean gelditzen gara. Esan behar dut zirkuitua asko gustatu zaidala; oso polita eta lasaia izan da ibilbidea. Trafiko gutxirekin gustura egiten diren ibilbide horietakoa izan da".



**Mikel Arantzamendi**
Mutriku

"Gipuzkoan antolatzen diren martxa gehienak egiten ditugu eta gaur Bergarara etortzea egokitu da. Ibilbide dotorea egin dugu, oso polita eta gogorra era berean. Euriak zapuztu du martxa, izan ere goitik behera bustita egin dugu bide guztia, eta tarte batzutan hotza ere pasatu dugu".



**Alex Muela**
Bergara

"Gustatzen zait bizikletan ibiltzea, baina, egia esan, gaur ez naiz batere gustura ibili. Oso gogorra egin zait eta lehertuta iritsi naiz helmugara. Gogor hasi dut martxa eta dena eman dut, baina indar barik gelditu naiz bukaerarako. Hala ere, datozen urteetan ere egingo dudalakoan nago".

# ra ibilbidearekin




Txirrindulariak irteera gunean martxaren babeslearen kartelaren ondoan. XABIER URTZELAI



Helmugara iritsita masajea ezinbestekoa. MIREN ARREGI



Txirrindulari taldea Udana gainean, 09:30ean. MIREN ARREGI



Gazteek ere hartu zuten parte martxan. MIREN ARREGI



Txirrindularia pozik Gorla gainean. J.A.



Behin esfortzua eginda indarra errekuperatu behar. MIREN ARREGI



Bergarako jokalari Gorka Uribe jaurtiketa egiteko ahaleginean. JOSETXO ARANTZABAL

**ESKUBALOIA** > IGOERA FASEA

## Bergara ezinean, zazpi goleko errenta izan arren

SORALUZE BKE
**31-31**
ELGOIBAR

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

Ligan Elgoibarren kontrako bi partiduak galdu ondoren, igoera fasean arantza ateratzeako aukera paregabea izan zuen zapatuan Soraluze BKEk. Igoera fasean neurtu zituzten indarrak, eta bigarren zatiaren hasieran zazpi goleko errenta izan arren (20-13), ez ziren irabazteko gai izan.

**DEFENTSA AURRERATUA**

Hasierako 12 minutuetan Elgoibarrek menderatu zuen partidua, eta aurretik ibili zen markagailuan. Bergararrek aurreratuta defendatu zuten eta Elgoibarrek zelai erdiko marra gainean antolatu zuen erasoa. Defentsa onarekin eta kontraeraso eraginkorrarekin 13-12 aurreratu ziren 22. minutuan. Atsedenerako abantaila bost golera zabaldu zuten (18-13).

Bigarren zatiko lehen bi golak etxekoek egin zituzten (20-13), eta lehia erabakita zegoela zirudien, baina ez zen hala izan. Elgoibarrek 2-7ko partziala egin zuen eta bi golera murriztu zuen etxekoen abantaila (22-20). Dena den, mahoneroek intentsitate berarekin jokatu zuten, eta bukatzeko bost minuturen faltan hiru goleko errenta zuen (30-27). Baina, handik aurrera, ezinean ibili ziren. 31-30ekoarekin gola egiteko aukera izan zuen Ugaldek, baina gora bota zuen. Elgoibarrek berdinketarako lehen jaurtiketa zutoinera bota zuen, baina bigarrenean ez zuen hutsik egin.



JOSETXO ARANTZABAL

## Aitor Aboy azkarrena Labegaraietan

Zapatuan jokatu zuten 48. Labegaraieta Saria lehenengo eta bigarren urteko kadeteendako. Carbonell Freixas taldeko Aitor Aboy izan zen azkarrena. Esprint estua izan zuen Ampo taldeko Mikel Garaialderekin, Sumofic taldeko Xabier Gallastegi (10.), Ulma taldeko Iñaki Mugartza (27.) eta Sumofic taldeko Andoni Lasa (34.) izan ziren debagoiendar azkarrenak.



Mondrako jokalari Araitz Etxabe baloiarekin, Arizmendiko Edurne Sagasta ondoan duela. JOSETXO ARANTZABAL

**EMAKUMEAK** > DERBIA

# Sufrituta irabazi zuen Mondrak Arizmendiko nesken kontra

**ARIZMENDI**
**1-2**
**MONDRA**

**Arizmendi** > Jennifer Herrero, Lierni Zanguitu, Ane Otaduy, Ariane Unanue, Marta Lizarralde, Edurne Sagasta, Haizea Arriaran, Ane Gartzia, Amaia Del Campo, Jone Agirregabiria eta Maialen Zabaleta.

**Mondra** > Vanessa Da Costa, Araitz Etxabe, Olatz Bideluze, Garazi Larrea, Gladys Fernandez, Ane Beraza, Alaine Roa, Renata Lopez, Andrea Paredes, Maitane Roa eta Ainhoa Alonso.

**Bestelakoak** > Harmailetan bi taldeetako jarraitzaileak bildu ziren.

**MIREIA BIKUÑA** > ARETXABALETA

Igoera faseko derbia jokatu zuten zapatuan Arizmendiko eta Mondrako neskek Almengo futbol zelaian. Arrasatearrek puntuak beharrezkoak zituzten lehen tokian jarraitzeko, eta, kostata eta ondo sufrituta, irabazi egin zuten. Dena den, Arizmendiko neskek gogor borrokatu zuten, eta minutu askotan estutu egin zituzten arrasatearrak.

**LEHENA, MONDRAK**

Lehen zatia aspergarria izan zen joko aldetik. Bi taldeei kosta egiten zitzaien jokaldiak egitea, eta pase onak ematea. Dena den, meritu galanta dute Arizmendiko neskek Almen bezalako futbol zelaian jokatzearekin. Egoera txarrean dago, eta zapatuan putzu handiak zeuden.

Harmailetan zeuden zaleek giroa jarri zioten derbiari, eta etengabe animatu zituzten jokalariak. Mondrako jarraitzaileak poztu ziren lehenengo, Ane Berazak arrasatearrendako gola egin zuenean. Arizmendiko atzeko lerroak egindako hutsa aprobetxatu zuen.

Aretxabaletarrek ez zuten amore eman eta entrenatzailearen animuekin, ahalegin guztia egin zuten. Saria bigarren zatian jaso zuten. Bosgarren minutuan areara falta erdiraketa egin zuen Arizmendik, baina Vanessa atezainak gaizki aldendu zuen baloia eta aldaratzea ate barrura bidali zuen Ane Gartziak. Zaleek eta jokalariek pozarren ospatu zuten berdinketa.

**JOKO ONA**

Mondrak berdinketa baino gehiago behar zuen sailkapeneko gorenean jarraitzeko, eta aurrera egin zuen. Ordu laurdena bete orduko markagailuan aurretik jarri ziren berriro. Korner erdiraketa ondo errematatu zuen Maitane Roak. Jennifer atezainak ezin izan zuen ezer egin baloia urruntzeko. Gol hark bi taldeak suspertu zituen, eta minutu onak jokatu zituzten. Zelai erditik baloia atera ondoren, Arizmendik berdinketa izan zuen eskura, baina aurrelariaren baloiak zutoinean jo zuen atezaina gainditu ondoren.

Hurrengo jokaldian Mondrak lehia erabakitzeko aukera izan zuen, baina Alaine Roaren falta jaurtiketak langan jo zuen. Handik aurrera arrasatearrak jokoa lasaitzen eta menderatzen ahalegindu ziren, puntuek zuten garrantziaz jabetuta.

Aretxabaletarrak aldiz, azken aukeraren bila ibili ziren behin eta berriz, baina berdintzeko aukera gabiak sortu barik.



JOSETXO ARANTZABAL

## Bergarak 87. minutuan berdindu zuen

Bergarak eta Hondarribik bana berdindu egin zuten atzo Agorrosinen. Mahoneroek penalti jaurtiketa huts egin zuten abantaila hartzeko. Ondoren Hondarribiak egin zuen lehen gola zuzeneko falta jaurtiketa batean. Bergararrek 87. minutuan berdindu zuten. Beñat Catalanek buruz errematatu zuen korner erdiraketa.

> HIRUGARREN MAILA

## Amurrion irabazitako puntuak ez ditu UDAren arazoak konpontzen

Aretxabaletak azken jardunaldira arte sufritu beharko du Hirugarren Mailan geratu gura badu. Atzo Amurrion puntu bat lortu zuen, baina ez da nahikoa sailkapenean gora egiteko. Bi aldiz berdindu zuten partidua Julenek eta Ikerrek egindako golei esker, baina ezin izan zuten hirugarrena egin. "Jokalariak lur jota daude, baina jaiki egin behar gara azken partidua irabazteko", esan zigun Igor Arenatzak.

Domekan Ibarran jokatuko du Aretxabaletak Salvatierraren kontra. Igor Gordobilen mutilek derrigor irabazi eta Lagun Onak taldeak Zallaren kontra egiten duenari begira egon beharko dute.

> OHOREZKO ERREGIONALA

## Lan ona egin zuen Mondrak, baina ez zuen saririk eskuratu (1-0)

Mondrak Ondarroako Aurreraren zelaian jokatu zuen zapatuan. Arrasatearrek aurre egin zioten sailkapeneko bigarren tokian dagoen taldeari, baina ezin izan zuten punturik lortu. Gustura dago Mondrako entrenatzailea taldeak egindako lanarekin. Lehen zatia parekatua izan zen, eta bigarrenean Mondrak izan zituen aukera garbienak berdinketa lortzeko. Bizkaitarrek penalti jaurtiketarekin egin zuten gola. Azken minutuetan bost aukera izan zituen Mondrak berdinketa egiteko.

Dena den, partiduko albiste txarrena Julen Herizen lesioa izan zen. Belauna apurtu du eta urtebete egon beharko da jokatu barik.

> OHOREZKO ERREGIONALA

## Partidu ona jokatuta, puntu bat Aloñarendako bigarrenaren kontra

Aloña Mendik eta Pasajesek partidu parekatua jokatu zuten atzo Azkoagainen, eta puntuak banatu zituzten (1-1). Aloñako entrenatzailea "gustura" zegoen bukaeran oñatiarrek egindako lanarekin. "Pasajes bigarren sailkatu da, baina aurreko astearekin alderatuta oso serio jokatu dugu", esan zigun.

Lehen zatiko 10. minutuan aurreratu ziren oñatiarrak Mikel Palaciosen golarekin. Korner erdiraketa buruz errematatu zuen.

Partidua eta zelai erdia menderatu arren, Pasajesek berdindu egin zuen bigarren zatian. Areaz kanpoko falta jaurtiketak hesian jo, eta baloia desbideratu zuen.

**MAILA AUTONOMIKOA** > ALOÑA MENDI-BALMASEDA

# Ez dute igoera matematikoki lortu, baina lehen tokian daude

**ALOÑA-MENDI**
**104-42**
**BALMASEDA**

**Aloña Mendi** > Iagoba (32), Ales (5), Ander (14), Mikel (8), Iñigo (12), Eneko (4), Iban, Ibai (8), Mikel (6), Iñigo (8), Osa (3), eta Beñat (4).

**Balmaseda** > Fernandez, Zamarillo (13), Montes (3), Santos (5), De la Serna, Lopez (5), Llorente (5) eta Aldai (16).

**Laurdenetako emaitzak** > Lehenengo laurdena: 31-14. Bigarren laurdena: 59-22. Hirugarren laurdena: 80-36. Laugarren laurdena: 104-42.

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Ez zen eurek esperotako aste bukaera borobila izan. Aloña Mendik igoera matematikoki lortzeko irabazi egin behar zuen –eta irabazi egin zuen –, eta liderrak, Santurtzik, beste horrenbeste egin behar zuen sailkapeneko hirugarrenaren kontra. Baina, kale egin zuen. Lizuan azpeitiarrek 57-58 irabazi zuten, eta Aloñak ezin izan zuen Lehen Mailarako txartela lortu, Balmasedari egundoko jipoia eman arren.

Dena den, igoera matematikoa lortu ez duten arren, zaleekin ospatu egin zuten. Eskerrak eman zizkieten urte osoan jasotako animuengatik.

**ZAPATUAN AZPEITIAN**

Aloñako entrenatzaileak egubakoitzean GOIENKARIAri esandako moduan, euren helburua lehen tokian bukatzea da. Aste bukaerako emaitzak kontuan hartuta, oñatiarrak lehen tokian daude, eta igotzeko aukera guztiak dituzte. Lehen mailan jokatzeko txartela euren esku dute.

Lehia erabakigarriena oraingo aste bukaerakoa izango da. Aloñak Lizuanen kontra jokatuko du. Hirugarren sailkatuak igoerako postuetan sartzeko geratzen zaizkion aukera apurrak oñatiarren kontra jokatuko ditu. Aloñari nahikoa zaio 27 puntu baino gutxiagatik galtzea (Oñatin Aloñak irabazi egin zuen 107-81).

Azken-aurreko partidua Basket La Peñaren kontra jokatuko dute etxean, eta azkena Ibaizabalen kontra.

**JOKALARI GUZTIAK**

Muebles Bizkaia Balmaseda taldearen kontrako norgehiagokak ez zuen emoziorik izan. Aloña Mendi partidua irabazteko gogoarekin irten zen kantxara, eta bosgarren minuturako 11 puntuko aldea zuen (13-2). Lehen laurdenaren bukaeran 17 puntu aurretik ziren oñatiarrak (31-14).

Bigarren tartearen lehen bost minutuetan nahiko motel jokatu zuten bi taldeek, eta puntu gutxi lortu zituzten –Aloñak zazpi eta Balmasedak bi –. Baina atsedenera heldu orduko abantaila handitu egin zuen Aloñak (59-22).

Partidua erabakita zegoela ikusita, urtean zehar minutu gutxiago jokatu dituzten jokalariei aukera eman zien oñatiarren entrenatzaileak. Guztion artean puntu asko egin zituzten, eta arazo barik menderatu zuten Balmasedako taldea.


Igoera ia eskutan dutela ospatuko zuten zaleekin. JOSETXO ARANTZABAL



Aloñako jokalari Ales Anduaga barneratzea egiten. JOSETXO ARANTZABAL

PROTAGONISTEN HITZAK



**Iñigo Biain**
Aloñako jokalaria

"Gure asmoa zaleekin igoera ospatzea zen, baina Santurtziren porrotak ez digu aukera hori eman. Hiru partidu zail geratzen zaizkigu, baina gure esku dago Lehen Mailara igotzeko txartela. Azpeitian jokatuko dugun partidua erabakigarria izango da ".



**Iagoba Gamarra**
Aloñako jokalaria

"Bi urtetan bi igoera ospatuko ditugu, eta hori ikaragarria da. Iazko igoera ona izan zen, baina esku artean duguna oso berezia izango da. Taldean giro izugarria dugu, eta ikusleek asko lagundu digute. Eurendako txalorik eta eskerrik beroenak!".



**Iban Lizarralde**
Aloñako jokalaria

"Azpeitian lortuko dugu igoera. Guretzat izugarria da Lehen Mailan jokatzea. Probintzial Mailan hasi ginen, eta bat-batean Lehen Mailan jokatuko dugu. Uste dut halako albisteak oso onak direla saskibaloiarendako. Ni oso pozik nago".

ausolan auzo lagun
AUZO LAGUN, KOOP. E
ARRASATE

Estatutu Sozialen 32 artikuluak dioenaren arabera, Ohiko Batzar Orokorrerako deia egiten da.

**OHIKO BATZAR OROKORRA**
**Deialdia**

**Eguna:** 2010ko Maiatzaren 15a.
**Ordua:** 10:30ean lehen deialdia eta 11:00etan bigarrena.
**Tokia:** Garaia Berrikuntza Gunearen Auditorioa (Arrasate).

**GAI ZERRENDA**

1. Aurreko aktaren onespenari buruzko txostena
2. Memoriaren irakurketa eta onarpena
   2.1. 2009ko kudeaketari buruzko akordioa
   2.2. 2010eko kudeaketa planaren onarpena
3. 2009ko kontuen eta balantzearen azterketa
4. Soberakin garbien banaketa
5. Ekonomia araubideari buruzko estatutuen xedapenak
   5.1. Sarrera kuotak eta ekarpena
   5.2. Kapitalari egindako ordainketa
   5.3. Ipdk aplikatzeko irizpideak
6. Mondragon taldeari eta erkop kooperatibari buruzko txostenak
7. Kontseilu errektorearen jakinarazpenak
8. Baliabideen batzordeko kideak berritzea
9. Galde - eskeak

*2010ko apirilaren 30ean*

**Alberto Narro** > Atama Kenpo taldeko kidea

# "Gazteekin arazoak ez ditugu indarrez konpontzen, eta bai berba eginez"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

**Alberto Narrok (Arrasate) Unibertsitate mailako estatuko kenpo txapelketa irabazi zuen orain dela hamabost egun Madrilen, eta nahiz eta txapelketetan hiru urte baino ez daramatzan, dagoeneko badaki Espainiako txapeldun izatea zer den. Kenpoarekin batera aikidoa ere egiten du, baina adierazi du borroka arte horiek ez dituela lantokian erabili. Landako (Araba) gazteen erreformatorioan egiten du lan, tutore moduan.**



Alberto Narro kenpoko agurraren jarreran, Musakolako kiroldegiko tatamiaren gainean. XABIER URTZELAI

**Txapelketetan urte gutxi daramatzazu, baina segituan jaso dituzu emaitza onak.**

Bai, ezin naiz kexatu, zorte handia izan dut-eta. Gaztetatik hasi nintzen Aikidoa egiten, baina borroka arte horretan ez dira txapelketak egiten, bai ordea erakustaldiak. Txapelketak zer diren ikusteko harra nuen barruan, eta horregatik animatu nintzen kenpoa probatzera. Eta kenpoan emaitza onak batu ditut, Espainiako txapelketan eta txapelketa unibertsitarioan aurrean ibili naizelako azken urte hauetan.

**Arrasaten egiten duzue aikidoa, eta kenpoa Eskoriatzan. Zelan animatu zinen beste borroka arte bat probatzera?**

Nire lagun Iker Letonak animatu ninduen, hura lehenago hasi zen-eta kenpoa egiten. Zazpi urte inguru daramatzat Eskoriatzako taldean, eta egia esan, koadrila galanta gabiltza orain.

Klubeko ateak, baina, zabal-zabalik daude, kenpoa egiteko ez da behar-eta aparteko ezaugarririk. Batzuk txapelketetan lehiatzeko prestatzen dira, baina badaude kirola baino egin nahi ez dutenak ere.

**Bi borroka arte horiek badute antzekotasunik?**

Bai, biak oinarritzen direla defentsa pertsonalean, eta hain zuzen, arlo hori da gehien sakondu nahi dudana. Txapelketa unibertsitarioan lehenengo saria eman zidaten kenpoaren hiru arlotan lortutako emaitzengatik, katetan, borrokan eta defentsa pertsonalean. Horrexegatik ematen diot balore handia lehenengo postu horri, arlo guztien baturagatik irabazi nuelako.

**Txapelketetan emaitza onak lortzea motibagarria da, bestela nekagarria izan daiteke, ala?**

Hori da nire kasua, apur bat nekatu egin naizela, eta oraingoz Madrilen egindako txapelketa hori izango da egingo dudan azkena. Espainiako txapeldun ere izan naiz, eta neurri batean motibazioa beste bat da, helburuak aldatu egiten dira. Aurten azaroan izango da Espainiakoa, Andaluzian, eta kilometro asko egin behar dira hara joateko. Gerta daiteke bidaia egin eta lehenengo borrokan kanporatua izatea. Ez zidan graziarik egingo. Lehen esandako moduan, nahiago dut defentsa pertsonalean sakondu, eta etorkizunean eskolak emateko irakasle titulua ateratzeko ikasi.

**Borroka arte horiek egitearekin batera, saskibaloian ere jokatzen duzu.**

Hainbat urtetan utzita izan dut saskibaloia, baina MUko bigarren taldean jendea behar zuten, eta entrenatzaile lanetan dabilen Juan Karlos Davilak proposatu zidan taldera itzultzea, izan ere, lehenago ere nire entrenatzailea izan zen. Baiezkoa eman nion, eta hor gaude taldeko jokalari beterano moduan [barre]; egia esateko oso urte polita ari gara egiten.

> **"Kenpoak eta aikidoak badute oinarrian antzekotasunik, biak defentsa pertsonalean oinarritzen direlako"**
>
> **"Saskibaloian ere jokatzen dut, MUko bigarren taldean, eta datorren asteburuan Easori irabazten badiogu kategoriaz igoko gara"**

**Kategoriaz igotzeko aukerekin zaudete.**

Bai, lurraldeko lehen mailara igoko gara datorren asteburuan Donostiako Easori irabazten badiogu [zapatua, 16:00, Iturripe]. Pena lehen nazional mailan dagoen taldeak kategoria galduko duela aurten. Maila autonomikora jaitsiko dira, horrek esan gura du mailaz igotzen badugu, gu baino kategoria bat gorago egongo direla.

**Esandakoa, pena MUko lehenengo taldeak ezin izan diola nazional mailari eutsi.**

Bere garaian taldeko arduradunek jende gaztearen aldeko apustua egin zuten, eta iaz lortu bazuten ere, aurten ezin izan diote kategoriari eutsi. Baina, ikustekoa da Javi Zurbanok ze talde gaztea duen, 20-22 urte inguruko jokalariak dira denak, baina oso jokalari onak. Nire ustez jokalari horiek taldean jarraitzen badute bi urte barru oso talde potentea izango dute, eta segituan egongo dira berriro ere lehen nazional mailara igotzeko moduan.

**Zaletasun asko bateratzen dituzu zure ogibidearekin batera, gizarte hezitzailea.**

Bai, urte asko ikasten ibili eta gero, eta lantegietan lanean ibili eta gero, bokaziozko lana bilatu dudala esango nuke. Hiru urte daramatzat lanean Landan dagoen erreformatorio zentro batean, eta egia da lanbide gogorra dela, baina aldi berean baita esker onekoa ere. Izan ere, pertsonekin egiten dugu lan.

**Aspaldian albiste dira horrelako erreformatorioak**

Bai, baina bereizi egin behar dira. Elgetakoa, esaterako, bakarrik dauden adin txikikoen zentro bat da, eta alde handia dago batetik bestera. Gurean zigor bat betetzen ari diren gazteak daude, eta 14 urtetatik 21 urtera arteko gazteak hartzen ditugu. Baina, eraikina erabat itxita dago, bete beharreko arauak daude, eta segurtasun neurriak ditugu. Handik ezin dira irten, baldin eta baimen berezirik ez badute.

**Egoera horretan errazago kontrolatu ahal izango dira ba gazteak.**

Bai, nik badakidalako zer den ateak zabalik dituen zentro batean lan egitea, eta han ezinezkoa zen inor kontrolatzea. Dena dela, gurera etorri dira lanera maila akademikoan oso prestatuta dagoen jendea, eta astebetera alde egin dute, ez zutelako bertan lanean jarraitu nahi.

**Gazteen artean errespetua lortzea ezinbestekoa izango da.**

Nik zortea daukat gorputz handia daukadalako, eta konturatzen naiz liskarren bat dugunean ez direla niri aurre egitera ausartzen, hain zuzen horregatik. Baina, han gauzak ez dira indarrez konpontzen, gazteekin berba eginez, baizik.

# KIBUC GURE AMETSA
## ALTZARIAK ETA OSAGARRIAK

## SUKALDE ETA BAINUETAN ESKAINTZA BEREZIA

**BEZEROAREN NEURRI ETA BEHARRETARA EGOKITUTAKO AURREKONTUAK EGITEN DITUGU.**

- BARNEALDEAK DISEINATU ETA ZAHARBERRITZEN DITUGU.
- URTE ASKOTAKO ESPERIENTZIA DUGUN LANGILE PROFESIONALAK GARA.
- ETXEAN EDOZEIN ERATAKO BERRIKUNTZAK EGITEARI BURUZKO AHOLKUAK EMATEN DITUGU.




KIBUC
altzari eta osagarriak
Azkenean gure etxean

gureametsa@kibuc.com
Landeta Hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia
Tel.: 943 15 16 81

KIBUC Gure Ametsa
altzari eta osagarriak

www.kibuc.com

>> proiektu eta erreformak >> gremioen koordinaketa >> proiektu eta erreformak >> gremioen koordinaketa >>

**PSIKOLOGIA** > KOMUNIKAZIOA

# Oporrak aukera ona dira afektibitatea eta komunikazioa lantzeko

Aisialdi denbora nola antolatu erabaki aurretik seme-alaben gustuak eta iritziak kontuan hartzeko gomendatu du Larraitz Arandok


Neskatila, udan, bizikletan. BOLZANO

**LARRAITZ ZEBERIO** > ARRASATE
Gero eta gertuago daude udako oporrak. Hainbat gurasok seme-alaben aisialdia nola antolatu erabaki beharrean egongo dira. Larraitz Arandok gai horri buruz idatzi du hil honetan. Dio zer egin denen artean erabakitzeak asko gozotuko duela egoera.

**GUSTUKO AUKERA EGITEA**
Udaleku irekiak, itxiak, familian, etxetik gertu edo kanpoan... aukera asko daude eta guztiak dira egokiak Arandoren esanetan. Garrantzitsua da seme-alaben aukera kontuan hartzea eta eskaintza erakargarriena bilatzen ahalegina egitea.

**EKINTZAK ELKARREKIN**
Oporretan elkarrekin egoteko denbora askoz ere gehiago egon ohi da. Arandok horri zukua ateratzea proposatzen du, eta burutu beharreko ekintzak denen artean erabakitzea. Elkar entzun, besarkatu eta jolasteko egun aproposak izan daitezke eta Urtxintxa eskolak kaleratutako *Jolasen laborategia* izeneko liburua gomendatzen du. Bertan, familian egiteko hainbat jolas jaso dituzte. *Besarkaden jolasa* edo *emozioak harrapatzen* izeneko jolasa ipini ditu adibide gisa. Opor sasoia afektibitatea eta komunikazioa lantzeko aukera ezin hobea izan daitekeela uste du, eta horretara animatzen du.

**ELIKADURA** > FRUTAK

## Garrantzitsua da umeen dietatik fruta ez kentzea

**L.Z.** > ARRASATE
Fruta oso osasungarria da; bitamina asko dauzka eta pieza bakoitzak 60-80 kaloria besterik ez du. Adituek diote garrantzitsua dela meriendan fruta jateko ohitura erakustea eta urteen joanarekin zaintzea. Jakin beharra dago zuku bat ezin dela fruta moduan hartu, gehienbat naturala ez bada. Umeei fruta jaten erakustea ez da gauza erraza, baina badaude zenbait formula. *Consumer* aldizkariak landu berri du gaia, eta zenbait adituk hainbat gomendio egiten dituzte bertan.


Fruta jaten erakutsi egin behar zaie umeei. EIRUGA

**HIRU GOMENDIO NAGUSI**
Umeei kalitatezko fruta eskaini behar zaie. Itxura, kolore eta zapore onekoa. Nahikoa da behin egoera txarrean dagoen fruta pieza bat jatea, umeak hurrengoetan atzera egiteko. Fruta hozkailuko beheko bandejan gorde behar da edo kanpoan toki freskoan.

Aurkezpena ere zaindu egin behar da. Mazedonian, zatitan, zurituta edo barik... umearen gustuak ezagutzea garrantzitsua da fruta jateko unea dibertigarria eta atsegina egiteko.

Azken gomendioa: ez da amorerik eman behar. Marta Garaulet adituaren esanetan, behin eta berriz eskaini behar zaie zapore berriko jakiak umeei. Ez dituzte guztiak berehalakoan onartzen. Beharrezkoa da batzuetan hamar aldiz eskaintzea. Eta egindako ahaleginak fruituak ematen ditu!



Amaia Garitano, botikaria, GOITBn. GOIENKARIA

**Amaia Garitano** > Botikaria

## "Hiperaktibitatearen asalduraren gainean ikerketa gutxi egin dira"

**L.Z.** > ARRASATE
**Farmazialari Euskaldunen elkartearen FEUSE saria jaso du Amaia Garitano debarrak. Atentzio defizita eta hiperaktibitatearen asaldura ikertu ditu.**

**Zeintzuk dira asaldura honen sintoma nagusiak?**
Oinarrizko hiru sintoma daude: atentzio defizita, inpultsibitatea eta hiperaktibitatea. Haur guztietan ez dira sintoma guztiak intentsitate eta modu berean ematen. Oso adierazpen heterogeneoa dauka asaldura honek. Ume batetik bestera desberdintasun handiak izaten dira.

**Zeintzuk izan ohi dira gurasoen kezka nagusiak?**
Oso arduratuta egon ohi dira. Haur hauek arazoak dituzte giza harremanetan, arreta kokatzeko, eta, gainera, inpultsibitate arazoak ere egon daitezke. Ondorioetako batzuk eskola porrota eta droga menpekotasuna izan daitezke.

**Nola egiten da diagnostikoa?**
Gaur egun ez dago proba biokimikorik asaldura diagnostikatzeko. Galdera sorta bat erabiltzen da horretarako. Baina lehen oharkabean pasatzen ziren kasuak orain diagnostikatu egiten dira.

**Tratamendurik badago?**
Ikusi da oinarri neurologiko bat badaukala. Garunean dauzkagun gune batzuen funtzio anomalo bat dela eta normalean genetikoki transmititzen dela. Tratamenduari dagokionez, asaldura arina denean normalean nahikoa izaten da tratamendu ez farmakologikoarekin. Botika behar bada, bi daude egun baimenduta; metilfenidatoa eta atomoxetila.

**Sendatzen den asaldura da?**
Apaldu egin daiteke eta dituen ondorio larriak txikitu, baina guztiz sendatu, ez.

**"Apaldu daiteke eta dituen ondorio larriak gutxitu daitezke, baina sendatu, ez"**

**"Lehen oharkabean pasatzen ziren kasuak, orain diagnostikatu egiten dira"**

> OSASUNA

### Amaren eta haurraren identifikaziorako sistema berria ipiniko dute Osakidetzako zazpi ospitaletan

Haurdun dagoen emakumeari –ospitalean ingresatzen duten unean bertan– identifikaziorako eskumuturreko bat jarriko diote, eta gauza bera egingo dute haurrarekin, jaiotzen denean: halako beste bat jarriko diote orkatilan. Sistema berria Saident enpresak garatu du eta Gurutzetako, Donostiako, Txagorritxuko, Basurtoko, Bidasoako, Zumarragako eta Debagoieneko ospitaleetan ipiniko dute. Urte amaierarako denetan martxan egongo da.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com



**> UDABERRIKO MUSIKALDIA**
Musikaz poesia egiten duen piano jotzailea **> 30**



**> MAKETA LEHIAKETA**
Epaimahaiaren aipamen berezia, Mery Mayri **> 32**

**> JOSE LUIS ZUMETA**
'Oi! Bihotz' Erakusketa inauguratu zuen barikuan, Arrasateko Kulturaten; 'Globo Rojo' aldizkariko lanetan oinarritutakoa da **> 31**





Aurpegi oso ezagunak aurkituko ditugu 'Mugaldekoak' filmean; bestak beste, Mireia Gabilondo, Isidoro Fernandez eta Iñaki Beraetxe. TANTTAKA

**ZINEMA** > 'MUGALDEKOAK'

# Gabilondok zuzendu du 1942an kokatutako filma

**GERRA OSTEAN**
'Comète' sareari buruzko filma zuzendu du Mireia Gabilondok

**ARETXABALETAN**
'Mugaldekoak' filma eskainiko dute gaur eta bihar Arkupe kultura etxean

**ARRITXU BARRUSO** > DEBAGOIENA

*Comète* sarea II. Mundu Gerra garaian sortu zen eta Euskal Herrian laguntzaile asko lortu zituen. Europako lerroetan jausten ziren hegazkin gidari ingelesak beren jatorrizko herrietara bidaltzeko eratu zen nazioarteko sare hori; Euskal Herriko muga ihesbide bikaina bilakatu zen. Bada, Mireia Gabilondo aktore eta zuzendari bergarararrak euskal mugalarien istorioa kontatu nahi izan du esku artean daukan proiektuarekin: *Mugaldekoak*.

**FILMA ETA TELESAILA**

Gerra ostean girotutako lehen fikzio lana da, ETBn eta Tentazioa ekoizpen-etxean egina. Bi eskaintza izango ditu: *tvmovie* formatuan egindako filma eta 13 ataleko telesaila. "1942. urtean kokatutako istorioa da. Horrek asko garestitzen du proiektua: antzinako jantziak, autoak, altzariak... Gastu horiek aprobetxatu eta bi produktu ateratzea erabaki genuen", azaldu digu Gabilondok.

Grabaketak, besteak beste, Goizuetan eta Oiartzunen egin dituzte: "Ez da erraza izan. Mendiko eszenak errazagoak izan dira kokatzen, mendiak ez dira aldatu, baina 40ko hamarkadatik hona herriak asko aldatu dira. Horrelako film batean, sinesgarritasuna lortu nahi bada behintzat, eszenaratzeak berebiziko garrantzia dauka. Asko zaindu dugu irudia".

**HERRI TXIKI BATEKO TIRABIRAK**

Euskal mugalariek egindako lana ezagutarazteaz gain, herri txiki bateko herritarren istorioak erakusten ditu *Mugaldekoak* filmak: maitasuna, leialtasuna, gorrotoa, traizioa...



Mireia Gabilondo eta Isidoro Fernandez

Pertsonaia protagonistak Mireia Gabilondo bera eta Isidoro Fernandez dira. Horrez gain, Iñaki Beraetxe, Klara Badiola edo Joxean Bengoetxea moduko aktore ezagunak ikusiko ditugu.

Apirilaren 14an aurkeztu zuten filma Donostiako Victoria Eugenia antzokian eta kritika oso ona lortu zuten. Gaur (16:30) eta bihar (19:30) Aretxabaletako Arkupen ikusi ahalko da.

Bestalde, Euskal Telebistaren lehenengo katean eskainiko dute laster 13 ataleko telesaila.

---

**Mireia Gabilondo** > Aktore eta zuzendaria

## "Herriko sendagilearen emaztea naiz"

**A.B.** > DEBAGOIENA

**Mireia Gabilondo bergararra zuzendari eta aktore lanetan ibili da 'Mugaldekoak' film eta telesailean.**

**Nola sentitu zara horrelako proiektu bat zuzentzen?**

Oso gustura. Fernando Bernuesen laguntza izan dut. Aurrez ere egin dut berarekin lan eta dena errazagoa izan da.

**Aktore lanetan ere jardun duzu. Zein da zure pertsonaia?**

Herriko sendagilearen emaztea naiz; *Comète* sarean sartuta dagoena. Gure etxean hegazkingidariak hartzen ditugu, baina senealabek ez dakite ezer. Erdian nago.

**Zergatik ikusi behar dugu *Mugaldekoak* filma?**

Ondo pasatuko duzue. Horrez gain, askok gure mugan gertatutakoa ikusteko aukera izango dute eta gazteek gertatutakoa ezagutzeko aukera. Gaur egungo hainbat gauza ulertzeko ezinbestekoa da.

**MUSIKA** > UDABERRIKO VI. MUSIKALDIA

# Musikaz poesia egiten duen piano jotzailea

**NON:** Arrasateko parrokian.
**EGUNA:** Zapatua, Maiatzak 1.
**ZENBAT JENDE:** 150 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Ordu eta erdi.

**MIREN ARREGI** > ARRASATE

"Gaur eskainiko dudan errepertorioa oso egokia da hau bezalako eliza batean interpretatzeko. Bach, Ravel eta Granados bezalako konposatzaileen lanek indar berezia hartzen dute halako elizetan" esanez hasi zuen Alessio Bax Italiako piano jotzaileak Arrasateko Udaberriko VI. Musikaldiaren baitan eskainitako kontzertua. San Juan Bataiatzailearen parrokiak kontzertu bikaina entzuteko baldintza guztiak betetzen zituela zirudien, baina, kontzertua hasi ahala ohartu ginen, akustika aldetik bikaina dela zalantzan ipini barik, hura ez zela Alessio Baxen kontzertua entzuteko tokirik egokiena. Kaleko umeen zaratek, une askotan, entzuleek arreta galtzea ekarri zuen.



Alessio Bax piano jotzaile italiarra San Juan Bataiatzailearen parrokian, zapatuan. JOSETXO ARANTZABAL.

### BACH ETA MUSIKA BARROKOA

Bi zatitan banatu zuen Bax-ek emanaldia. Lehenengoan Johann Sebastian Bach barroko garaiko konposatzaile handiaren lau pieza eskaini zituen; bigarrenean, XVII. mendetik XX.erako saltoa emanez, Ziburun jaiotako Maurice Ravelen eta Enrique Granados kataluniarraren lanak. Lehen zatian musika barrokoari begira jarri gintuen; bigarrenean, aldiz, inpresionismoari eta erromantizismoari. Italiarrak jakin zuen ikuslearen ezaugarriak kontuan hartuta, kontzertu gustagarri bat egiten. Entzuteko errazak diren kontzertu horietako bat eskaini zuen eta hasi, oso modu leunean egin zuen. Hain justu, Johann Sebastian Bach-en *Sheep May Safely Graze* abesti ezagunarekin hasi zen, minez dagoen munduari bake zantzuak eskaintzen dizkioten akordeen artean dantzan. Ondoren etorri ziren, betiere konposatzaile alemaniarraren errepertorioarekin jarraituz, *Largo*, *Siciliano* edota *Chacona* bezalako maisu lanak.

Laugarren horretan sentitu ahal izan zen pianoaren indarra bere espresiorik gorenean. Eliza goitik behera etorriko zela ere bazirudien batzuetan, mendeetan zehar zutik dirauten zutabe eta arbotanteek pianoaren bortizkeria eutsiko ez zutela sentitzera iristeraino.

### RAVEL ETA GRANADOS BIGARREN

Bigarren zatian erakutsi zuen Bax-ek piano jotzaile gisa dituen gaitasun itzelak. Maurice Ravelen eta Enrique Granadosen lanak interpretatu zituen, gogoz eta indartsu. Nortasun handiko partiturak eta nortasun handiko piano jotzailea horiek interpretatzen.

### MUNDUKO ONENETARIKOA

Munduko piano jotzaile onenetarikoa kontsideratzen dute musikan adituek. Guk ere izan genuen hori frogatzeko aukera. Ezustekorik ere izan zen, hain justu, bi bis egin zituen: lehenengoan, pieza klasiko bat interpretatu zuen, soilik ezkerreko eskua erabiliz eta bigarren bisarekin, honezkero egin ez bazuen, ikuslea bereganatu zuen; Johannes Brahmsen *Dantza hungariarra* obraren interpretazioak, eliza zutik ipini zuen.



GOIENKARIA

## Ekokaleak lehiaketako irabazlea: 'Kanpaia'

XXI. mendeko etxebizitzaren jardunaldien barruan, egubakoitzean banatu zituzten Arizmendi ikastolak bigarrenez antolatu duen Ekokaleak ideia lehiaketako sariak. Arizmendiko Silvia Bazek aurkeztutako proiektua aukeratu dute irabazle, epaimahairen ustez. Kanpai zakarrontzia aurkeztu du Bazek eta honako arrazoi hauengatik aukeratu dute: hirian integratzeko egokia, egiteko erraza, bideragarria eta iraunkorra. Irudian, lau irabazleak.

**MUSIKA** > OÑATIKO XXXII. MUSIKEGUNAK

# Datorren zapatuan hasita, musika astebururo, Oñatin

Donostiako Udal Txistulari Taldeak emango dio hasiera XXXII. Musikegunak zikloari; hilaren 30ean amaituko da

**MIREN ARREGI** > OÑATI

Iritsi da maiatza, eta horrekin batera baita XXXII. Musikegunak izeneko musika zikloa ere. Bereziki musika klasikoari eskainitako zikloak askotariko eskaintzak ekarriko ditu aurten ere; kontzertu guztiak izango dira 19:30ean, zikloari hasiera emango diona izan ezik; hori, 19:00etan izango da-eta.

Maiatzaren 8an izango da Donostiako Udal Txistulari Taldearen kontzertua. Hori zapatuan izango da, baina gainontzeko hirurak, domeketan. Hilaren 16an Oñatiko Ganbara Abesbatzaren kontzertua ikusi ahal izango da. Esteban Urtzelaik abesbatza utzi badu ere, hura izango da emanaldia zuzenduko duena. Horiekin batera, Camara Cum Laude orkestrak jardungo du eszenatokian. Hilaren 23an izango da Alos Quartet laukotearen txanda. Musika klasiko nahiz modernoan ibilbide artistiko zabala duten musikariek osatzen dute Alos Quartet. Ospe handiko hainbat orkestrarekin lan egiteaz gain laukoteko partaideak folk taldeetako kide ere badira. Musika zikloari amaiera emango dio, berriz, hirukote baten kontzertuak. Olatz Saitua sopranoak eta Ainhoa Zubillaga mezzosoprano ezagunek Eugenio Tobalina kitarra jotzailea izango dute lagun taula gainean; XVIII. eta XIX. mendeetako musika interpretatuko dute, guztion gozagarri.

Jose Luis Zumeta > Margolaria

# "Arrasate da erakusketa honendako toki egokiena"



Jose Luis Zumeta Kulturateko klaustroan, egubakoitzeko ekitaldian.
ARRITXU BARRUSO

ARRITXU BARRUSO > ARRASATE

**Jose Luis Zumetak (Usurbil, 1939) *Oi! Bihotz* izeneko erakusketa inauguratu zuen barikuan Arrasateko Kulturateko klaustroan. Maiatzaren 30era arte egongo da bertan ikusgai. 80ko hamarkadan ezagun egin zen *Globo Rojo* aldizkariko testuetan oinarritutako 38 serigrafiaz osatutako erakusketa da, Jose Luis Zumetak eta bere alabak elkarlanean egindakoa. Iaz estreinatu zuten, eta hainbat areto pasatu ostean Arrasatera iritsi da orain. Egubakoitzean, inaugurazio ekitaldian, Zumetarekin hitz egiteko aukera izan genuen.**

**Nola ezagutu zenuen *Globo Rojo* aldizkaria?**

Juan Luis Goikolea eta Iñigo Arregi arrasatearrak lagunak ditut. Ez dut oso ondo gogoratzen noiz eta nola, baina beraiek ekarri zidaten aldizkariaren ale bat. Oso interesgarri iruditu zitzaidan. Santa Agedako San Juan de Dios ospitaleko gaixoek egindako aldizkaria zen eta asko gustatu zitzaidan.

**Zer ikusi zenuen aldizkari hartan?**

Sentimendu asko eta indar asko. San Juan de Dios ospitaleko eta *Globo Rojo* aldizkariaren arduradunekin harremanetan ipini nintzen eta hamabost bat ale eman zizkidaten. Orduan ikusi nuen liburuxka bat edo zerbait egiteko aukera bazegoela. Baina, momentua ez zen onena niretako, denbora asko eskatzen zuen gauza bat zen eta alde batera utzi nuen. Orain dela hiru urte nire alabak, bera serigrafia egilea da, zerbait egiteko gogoa zuela esan zidan, eta berehala gogoratu nintzen *Globo Rojo* aldizkariarekin eta duela 20 urte inguru alde batera utzi nuen proiektu horrekin. Horrela sortu zen *Oi! Bihotz* liburua.

**Erakusketa gero etorri zen orduan...**

Bai, lehenengo liburua argitaratu genuen. Hobeto esanda, lehenengo ideia etorri zen, gero liburua eta azkenik erakusketa bat egiteko aukera.

**Liburua gainera oso berezia da, eskuz egindakoa.**

Bai. Dena da artisau erara egindakoa; serigrafia, berez, artisaua delako. Liburuaren papera ere eskuz egindako da eta baita koadernaketa ere. Lan handia dago liburu honen atzean.

**Ezberdinen edota baztertuen sormenak inspiratzen zaituela esan ohi duzu.**

Beste gauza batzuen artean bai. Akademiaren kutsadurarik ez duen jendea izaten da, beharbada artearen historia ezagutzen ez duena. Gauzak oso espontaneoak eta indartsuak egiten dituzte. Beste kultura batean bizi den jendeak inspiratzen nau, edo haurrak edota buruko gaixotasunak dituztenak...

**Nolakoa izan da testuak serigrafia edo irudi bihurtzeko prozesua?**

Aurrena testu guztiak irakurri genituen eta gero interesgarrienak edo esanguratsuenak aukeratu. Argi neukan testu laburrak nahi nituela, japoniarrek egiten dituzten *haikuen* tankera eman nahi nien.

**Zaila izan da?**

Testuak askotan inkoherenteak ziren. Horrek bere alde onak eta txarrak ditu. Alde ona da askatasun gehiago ematen dizula eta alde txarra askotan ez dakizula nondik heldu. Baina, bai, zaila izan da. Teknikak ere berez zailtasunak ditu; kolore bakoitza aparte egin behar da eta serigrafiaren emaitza hasieratik argi izan behar duzu buruan.

**Zer dela-eta ipini diozue *Oi! Bihotz* izena proiektu honi?**

Lehen esan bezala *Globo Rojo* aldizkarian irakurritako testuak sentimenduz betetako testuak ziren; barru-barrutik eta inolako zentsura barik argitaratutakoak. Bihotzetik idatzitakoak zirela uste dut.

**"Sentimendu eta indar asko ikusi nuen San Juan de Dioseko gaixoek egindako aldizkarian"**

**"Testu asko inkoherenteak dira eta horrek bere alde onak eta bere alde txarrak ditu"**

**Pozik zaude erakusketaren emaitzarekin?**

Bai oso pozik nago. Lan handia eman digu, baina merezi izan du. Gaur, gainera, bereziki pozik nago erakusketa Arrasatera ekartzeagatik. Nik uste dut hauxe dela erakusketa honendako leku egokiena. Aurkezpen hau berezia da niretako.

**Koloretsua da zure lana beti, baina hau are koloretsuagoa akaso...**

Bai, baina hori teknikak ahalbidetzen du; serigrafiaren teknikak oso kolore indartsua ematen du, olio original baten modukoa. Ez da beste inprentako lanen modukoa; askoz kolore biziagoak, indar handiagokoak ematen ditu, baita dentsitate eta sakontasun handiago ere.

**Baduzu beste zerbait esku artean?**

Bai. Lanean ari naiz, baina ez daukat data zehatzik. Erakusketa batzuk izango ditut Bilbon eta Madrilen. Baina bai, margotzen ari naiz. Hurrengo erakusketarako zerbait handia egin nahi dut.



Cristina Padilla, Ino Galparsoro, Jose Luis Zumeta eta Oscar Martinez inaugurazio ekitaldian.
ARRITXU BARRUSO

## 'Globo Rojo' aldizkariak egindako lana azpimarratu zuten denek

*Oi! Bihotz* erakusketa inauguratzeko ekitaldi xumea egin zuten Kulturateko klaustroan bariku goizean. Jose Luis Zumeta eta bere alaba Uxue Zumetarekin batera, Ino Galparsoro alkatea eta *Globo Rojo* aldizkariko arduradun izandako Oscar Martinez eta Cristina Padilla izan ziren bertan. Guztiek ere Santa Agedako ospitale psikiatrikoko gaixoek egindako aldizkariaren garrantzia azpimarratu zuten. *Globo Rojo* aldizkaria 1982. urtean jaio zen "gaixoekin tratamendu moralak burutzeko asmoz". 2005ean amaitu zen bere ibilbidea eta urte horietan guztietan 24 ale argitaratu ziren.

## Arregiren dendan ere Zumetaren lanak

Arrasateko Kulturateko klaustroa ez da izango Jose Luis Zumetaren lanak ikusteko aukera eskainiko duen leku bakarra. Iñigo Arregi arrasatearra eta Zumeta lagunak dira urte askotatik eta *Oi! Bihotz* erakusketa Arrasatera iritsi dela aprobetxatuz Arregik margolari usurbildarraren beste hainbat obrekin erakusketa osatu du bere dendan. "Askotan izan ditut Jose Luis Zumetaren lanak nire dendan, baina oraingo honetan *Oi! Bihotz* Arrasaten dagoela aprobetxatuz erakusketa bat egitea pentsatu nuen. Modu horretara, *Globo Rojo*-n oinarritutako serigrafiez gain Zumetaren beste obra batzuk ikusteko aukera egongo da Arrasaten bertan", azaldu digu Iñigo Arregik. Erakusketa hamaika serigrafia eta lau margolan originalez dago osatuta.



Bad Co. taldeko abeslari *Sucker* eta RIP taldeko *Jul* ere igo ziren taula gainera. JOSETXO ARANTZABAL

**KONTZERTUA** > DIRTY BROTHERS

# Kolaborazioen diskoa eta gaua

**NON:** Arrasateko 3 aretoa.
**EGUNA:** Zapatua, maiatzak 1.
**ESTILOA:** Punk-rocka.
**IRAUPENA:** Bi ordu.

**A.B.** > ARRASATE

Lagun artean musika akustikoa jotzeko elkartu zen hasiera batean Dirty Brothers taldea, baina proiektua indarra hartuz joan zen eta apirilaren hasieran *Gure bidea* izeneko diskoa kaleratu zuten. Abadiñon izan ziren pasa den aste bukaeran eta oraingo honetan lan berria etxean eta lagun artean aurkeztea tokatzen zitzaien; 3 aretoan kontzertua eskaini zuten zapatu gauean.

Lan berrian kantu propioak eta gustuko dituzten taldeen bertsioak jaso dituzte. Bada, zapatuan horiek guztiak entzuteko aukera izan zen.

Kolaborazioak ere izan dituzte diskoan; besteak beste, Deskontrol, Never Surrender, Enboskada eta Iskanbila taldeetako kideak. RIP-eko *Jul*-ek ere hartu du parte lan horretan eta zapatuan taula gainean ikusi genuen Dirty Brothersekoekin hiru abesti jotzen.

Dena dela, *Jul* ez zen izan zapatuko gonbidatu bakarra; Kontzertuaren amaiera aldera Berlingo Bad Co. eta Frontkick taldeetako *Sucker* eta *Marti* igo ziren taula gainera eta Salaren gitarraren laguntzaz abesti bat eskaini zuten.

Beharbada, uste baino jende gutxiago gerturatu zen zapatuko kontzertura, baina lehenengo ilaretan zaleak indartsu eta gogotsu ikusten ziren.

**MUSIKA** > GAZTEAKO MAKETA LEHIAKETA

# Epaimahaiaren aipamen berezia, Mery Mayrentzat

'Free like an eagle' abestiaren berezitasuna saritu du maketa lehiaketako epaimahaiak

**MIREN ARREGI** > ARRASATE

Mery May bakarlari arrasatearra pozik egoteko moduan da; izan ere, Gaztea Maketa Lehiaketan epaimahaiaren aipamen berezia jaso du, eta aipamen edo sari berezi hori aurreikusita ez zegoen sari bat da. *Free like an eagle* abestiarekin aurkeztu da Maria Fagan lehiaketara, eta epaimahaiak abestiaren berezitasuna eta izaera ausarta aitortu dizkio.

**DANBAKA LEHIAKETAN**

Askotan izan dugu Mery May bakarlari gisa ikusteko aukera; besteak beste, Danbaka musika lehiaketaren azkeneko edizioan (2008) hartu zuen parte. 14 urterekin hasi zuen ibilbidea eta talde desberdinetan ibili ostean ekin zion bakarkako ibilbideari. Era akustikoan eta 70eko hamarkadako folk-rocka ardatz, nortasun handiko musikaria da.



Mery May bakarlaria. GOIENKARIA

**KIROLA** > PATINAKETA

# Patinen gainean irristaka

**OLATZ MANUEL**

Udaberriaren erdi-erdian sartuta gaudenean, eta eguraldia lagun dugun egun hauetan, naturaz gozatu eta kanpoan kirol jarduerak egiteko aukera bueltatu da; mendi itzuliren bat, korrikaldiak, bizikleta txangoak..., eta, jakina, patinak jantzita irristatze aldi bat.

Azkenaldian kale eta parkeetan ez ezik, Urkuluko urtegian ere patinatzaile ugari ikusten hasiak gara. Adin, sexu eta trebetasun anitzekoak, gainera. Patinetan ibiltzen diren horiek geroago eta gehiago dira eta horientzat argibide batzuk ematea da idatzi honen helburua.

**JARDUERA FISIKO OSASUNTSUA**

Erorketak alde batera utzita, patinatzearen gaineko ezaugarriak gorputzarentzat ezin hobeak dira: ekintza aerobiko lasaia da, inpakturik gabea, gure erresistentzia hobetzeko aukera ematen diguna eta, aldi berean, dibertigarria.

**PATINATZAILE MOTAK**

Orokorrean eta erabiltzen diren eremu eta tekniken arabera, lau patinatzaile mota bereiz ditzakegu. Modalitate bakoitzak trebetasun espezifikoen lanketa eskatzen du:

- Ikastaro eta frontoietako patinatzailea: balaztatze, biraketa eta trebetasun bereziak garatzen ditu. Eremu itxietan eta zoru leunetan sentitzen da seguru.

- Kaleko patinatzailea: batez ere, haurrak dira. Teknika konkretuak menderatuta izan ez arren, lurzoruetan eta edozein egoera aldakorretan moldatzeko gaitasuna du.

- Skate parketako patinatzailea: modalitate espezifikoa da; parkeetako maldan, mailetan eta abar aritzen dena. Guztietan konplexuena eta zailena.

- Urkuluko patinatzailea: eremu zabalean desplazamendua, pausokada eta irristaketan abiadura menderatzen duena. Askotan biraketa eta balaztatze modurik ezagutu gabe moldatzen da.

> **Patinaketa ekintza aerobiko lasaia da eta kirol oso dibertigarria**

**URKULUKO IBILBIDEA**

Zoruaren kalitatea kontutan hartuta, hobe da urtegiari buelta erdi soilik ematea; eskuinerantz abiatuz (komunak dauden aparkalekutik Goroetarantz) eta presa ingurura iritsi aurretik bueltа erdi ematea komeni da eta hasierara itzultzea. Buelta osoa eman nahi bada, hobe da beste alderantz ematea (aldapa beherak ez dira hain arriskutsuak).

**BABESAK**

Deserosoa izan arren, komenigarria da erabiltzea babesgarriak; erorketetan min hartzeko arriskua gutxituko da. Kaskoa, eskumuturretakoak, ukondoetakoak eta belaunetakoak erabili.



Txikiendako ez ezik, helduendako ere egokia da patinaketa. ARIZMENDI

**IRRISTAKETA TEKNIKAN MENDERATU BEHARREKOAK**

- Patinatzaile pausua: pausokadaren zabaltasuna eta maiztasuna dira hobetu beharrekoak. Gorputzaren errotaziorik gabe eta besoek bulkadan laguntzen dutelarik.
- Balaztatzea: balaztatzeko era asko dago; orpo, T, lunge, paraleloa eta power slide, besteak beste. Bat edo bi ondo menperatzea gomendatzen da.
- Biraketak: biraketetan beste horrenbeste, nahi beste aukera; A biraketa, ibilbidea zuzenduaz, biraketa gurutzatua, paraleloa (azken hau menderatzea da garrantzitsua)...
- Maldak jaistea: maldak jaisteko erarik seguruena orpo edo T balaztatzea eginez da. Biraketa paralelo itxiak eginez ere jaits daiteke.
- Ibilbidean aurki ditzakegun oztopoak (zulo, putzu, harri, egur zati...) gainditzeko errekurtsoak izatea ere garrantzitsua da; jauziak egin, hankak zabaldu, norabide aldaketa azkarrak egin...

**Atal honetan...**

Astero-astero, Arizmendiren eskutik, intereseko gaiei buruzko aholkuak.

Arizmendi ikastola PRO 2.0 PROFESIONALAK
Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa

GURE TALDEAK

## Malatu



Ezkerretik eskuinera, Xefe, Luisja, Mikel (eserita), Laura, Iñaki, Nando eta Alberto. GAZTELUPEKO HOTSAK

# "Iturri askotariko musiken baturarekin sortzen da Malatu"

Bi urtean lan gogorra egin ondoren, Malatu taldeak izen bereko lehen diskoa kaleratu du eta ekainaren 5ean aurkeztuko dute, Gasteizen

Kultura & Natura estudioan grabatu dute, Alberto de la Casaren gidaritzapean, eta ekoizpena Nando de la Casak egin die

**MIREIA BIKUÑA** > LEINTZ GATZAGA

**Malatu taldeak izen bereko lehen diskoa kaleratu du. Taldea orain dela bost urte sortu zuten, eta lehen emaitza jaso dute. Iñaki Gabilondo abeslariarekin egin dugu berba disko berriaren gainean eta taldearen sorreraz eta bilakaeraz.**

**Nondik dator taldearen izen bitxi hori? Afrikako berben antza daukala esan dezakegu?**

Gure aitaita, Asentzio Gabilondo, Malato baserrira joan zen bizi izatera ezkondu orduko, eta han jaio ziren haren hiru semealabak, tartean gure aita. Inguruko bizilagunek *Malatu* ezizena jarri ziguten, eta taldearendako aproposa zela erabaki genuen. Malato sinbologiaz beteriko arbola omen zen, Bizkaia eta Araba arteko mugarrian. Jakin ahal izan dugunez, gerlariek borrokara abiatu baino lehen Malato arbolaren kontra kolpatzen zituzten euren armak.

**Jatorri eta talde oso desberdinetako jendeak osatzen duzue Malatu. Noiz eta nola elkartu zineten?**

Musikak elkartu gintuen eta elkarrekin mantentzen gaitu. Dena den, bakoitzak *ama* bat izan duela nabaria da; esaterako Alberto *Mugalari* bat izan da 25 urtean; Nandok Laboaren ondoan bizitakoak kontatzen dizkigu entseguetan; Laurak Gasteizko Big Band taldean dihardu eta Potaton ibili da urtetan. Iturri desberdinak dira eta bakoitzak isurtzen duen musika elkartzean Malaturen doinuak sortzen ditugu. Gure artean dugun harremana ateratzen zaigun musika bezain berezia da. Hasiera baten, Mikelen eta bion arteko bikote abentura bat izan zen. Handik, Anastua Jazz Perku Band izeneko seikotea osatu genuen. Anastuak azkenak eman zituen, baina lau partaidek aurrera egitea erabaki genuen eta Malatu etorri zen. Esan daiteke Malatuk bost urteko ibilbidea duela.

**Non grabatu duzue diskoa?**

Alberto de la Casaren gidaritzapean egin genuen grabazioa Gasteizko Kultura & Natura estudioan. Ekoizpena Nando de la Casak egin du. Bi urteko lana izan da, lasai-lasai ibili gara-eta.

**Diskoan bertsioak sartu dituzue: Laboarena bata eta Paul Desmond-ena bestea. Zergatik horiek?**

Bakoitzak egindako ekarpenen emaitza dira gure abestiak. Abesti gehienak gureak dira, baina diskorako hiru bertsio aukeratu ditugu. Lehena Laboak abesten zuen kantu herrikoi baten moldaketa da. Ama guztiei egiten diegun omenaldia da. *All of me*, berriz, Anastua taldean genbiltzanetik jotzen dugu. Sekretu bat ozen kontatzeko modu berezia da. Gainera, Desmond-en *Take five* kantua sartu dugu diskoan. Dena den, kantu horiek ez ditugu diskorako propio prestatu, baina grabatu egin ditugu.

**Batek baino gehiagok Iñakiren abesteko modua Laboarekin parekatu du.**

Mikel Laboak guztiok ukitzen gaitu. Haren abestiak Euskal Herriaren malkoak bezala sartzen dira barnera, haren goxotasunak ez du parerik. Ezin konpara daitezke. Nik hark erabilitako akordeak ikasi nituen eta haiekin hegan egitea lortzen dut. Asko eragiten nauen musika da Mikelek egiten zuena, eta nire abesteko moduak Laboa gogoraraztea ohore izugarria da niretako.

**Kontzertu asko dituzue lotuta?**

Oraingoz, ezin gara kexatu, eta zuzeneko batzuk lotu ditugu. Diskoaren aurkezpena Gasteizko Jimmy Jazz aretoan egingo dugu ekainaren 5ean. Gainera, Agurainen ere egongo gara Araba Euskarazen, ekainaren 20an. Bestalde, uztailean Otxandion egingo dugu zuzenekoa.



### Gure lurrean sustraitutako jazz irekia

Gasteizko eta Leintz Gatzagako eskarmentudun musikariek osatu dute Malatu, eta oraingoan bestelako tonalitate eta tempoak lortu dituzte, gure ibarrean ezohikoak direnak.

Jazza da euren indargunea, jazz xuxurlatua, swingetik gertu dagoena batzuetan eta instrumentazioari garrantzia handia ematen diote. Hala ere, gai dira ukitu latinoak sartzeko, biolinari esker ijito traza hartzeko eta, baita ere, bertako folkaren usaina bere gain hartzeko. Eta hitzak denetarikoak daude.

**Iker Barandiaran.**

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Etxebizitza salgai erdialdean. Eguzkitsua. 2004ko uztailean eraikia. Bi logela, egongela, komun bat eta sukaldea jantzita. Balkoia. Garajea aukeran. Galdetu Loreagatik. 659 66 02 55.

**Aretxabaleta.** Etxebizitza salgai erdialdean. 72 metro koadro eraikigarri. Hiru logela, sukaldea, egongela, komun bat eta trastelekua. Prezio interesgarria. 659 64 67 38

**Arrasate.** San Andresen, Arrasate dorrean, 93 metro koadroko etxebizitza salgai. Dena kanpoaldera begira eta ondo kokatua. Lau logela, bi komun, sukaldea, egongela eta bakoitza 32 metro koadroko bi terraza. Eguzkitsua. 297.500 euro. Isabel. 690-07 85 83

**Azkoitia.** Azkoitian etxebizitza salgai. 3 gela eta egon gela. Egoera onean,ez du obrarik behar. 25.000.000 pezeta . 943-85 11 74 edo692-20 43 91

**Bergara.** Bidekurutzeta kalean etxebizitza salgai. Sukaldea, egongela, bi logela, bainugela eta trastelekua. Guztiz berritua. Aukera ona. 171.000 euro. 618-44 38 44

**Berriz.** Berrizen pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, ganbara handia eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Guztiz berriztua eta egoera ezin hobean. 647-77 73 92

**Elgeta.** Duplex polita eta guztiz jantzia. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela handia, beheko suarekin. Berogailua etxe guztian. Aukera ona. Prezio negoziagarria. Deitu telefono zenbaki honetara etxea ikusi nahi baduzu. 685 75 18 91

**Elorrio.** Elorrion pisu bat saldu edo errentan ematen da; 3 logela, jangela, sukaldea bi bainugela eta ganbara. Altzariz jantzita, bizitzen sartzeko dena prest. Telefonoa: 657-70 03 21 edo 94-658 32 05

**Grañon (Errioxa).** Santo Domingo de la Calzada ondoan pisuak salgai, eraberritzen ari gara. Lehenengo pisua garajearekin salgai, bigarren pisua txokoarekin eta hirugarren pisua ganbararekin, igogailua dauka eta pisu bakoitzak 3 logela, komuna, sukalde jangela eta balkoitxo bat ditu. Herrian era guztietako zerbitzuak daude, baita ere udarako pistinak. 120.000 euro. 605-77 07 86.

**Irurtzun.** Irurtzunen pisua salgai. 90 m2. Bajera, trastelekua, bi logela, sukaldea jantzita, egongela oso handia eta komuna. Deitu 608-87 20 79ra.

**Lana.** Etxeak ditu: 3 logela, egongela (beheko sua du), sukaldea (sutegi ekonomikoa berria), komuna, ganbara eta ukuiluak. Teilatua oso ongi dago. Baratzeak 150 m ditu eta era ekologikoan landu da. Inguruak mendi eta naturazaleentzat ezin aproposagoak. Gasteiztik 45 minutura eta Lizarratik oso gertu. Egokia asteburu eta oporraldietarako. Ikustea merezi du. Deitu 699-24 86 99 zenbakira.

**Luz Saint Sauveur (Frantzia).** Luz Saint Sauveur Luz-etik 500 metrora, 58 metro koadroko duplexa salgai. 2 logela, komuna, sukaldea, antena parabolikoa. Dena oso egoera onean eta jantzita. 635-74 62 26

**Oñati.** 67 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Bi logela, komuna, jangela-egongela, eta sukalde guztiz hornitua. 264.000 euro. 35 metro koadroko garaje eta trastelekua, aukerakoak. 66.000 euro. 659-72 06 64.

**Oñati.** San Anton kalean estreinatzeko etxebizitza salgai. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Egoera onean eta jantzita. Trastelekua eta patio ere baditu. 240.000 euro. 665 71 77 96

**Ordizia.** Kanporaldera ematen duen 80 m2ko etxebizitza. 3 gela, egongela, sukalde handia, bainugela, balkoia eta berogailua ditu, garaje itxia aukeran. 186.313 euro. Bizitzen jartzeko moduan. 676-03 06 13

**943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com**
**http://www.goiena.net/sailkatuak**

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**

**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU/ALOKATU.**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Orio.** Donostiatik 10 minutura A-8ko irteera berritik. Etxe ederra eta goxoa: 99 m$^2$; sarrera, 2 logela bikoitz eta 32 m$^2$ko saloia, dena haritzezko tarima zabalarekin, sukalde handia, bainugela, terrazatxoa eta trasteroa etxean bertan (ikus planoa). Azkeneko solairuan dago eta 25 m$^2$ko ganbara hurrengo pisuan. 330.000 €. *www.etxegoxoa.com*. 639-20 27 64.

**Tolosa.** Tolosako alde zaharrean atiko argitsua.50 m2. Egoera onean. Prezioa 153.260 euro (25.500.000 pezeta). Interesatuek deitu 943-43 00 20 zenbakira. Zuzeneko salmenta.

**Tolosa.** (Voith-Gorostidi).Eraikuntza berriko etxebizitza salgai (75m2). Promotorearen bidez zuzeneko salmenta. Sukalde eta 2 komun ekipatuak, egongela handia eta 2 logela. Argitsua. Komuna izan ezik, beste guztia kanpora begira. 2 terraza eder eta baita trasteroa ere. Premiazksalmenta. 658-72 92 88

**Valentzia (Valentzia).** Etxebizitza salgai hiri erdigunetik 4 kilometrora (Port Saplaya). 75 metro koadro. Sarrera, jangela-egongela, bi logela, bi komun, terraza, igogailua eta komunitateko igerilekua. Hondartzatik 200 metrora. 200.000 euro. 635-75 09 47 edo 676-51 80 58

**Zumarraga.** 60 m$^2$ko etxebizitza salgai. Bi logela, egongela handia, sukaldea eta komuna. Oso eguzkitsua. 162.300 euro. 638-33 03 01.

### 102. EROSI

**Arrasate.** Egurrezko egitura eta gutxienez 3 logela dituen etxea erosi nahi dugu. Deitu 610 67 12 22 telefono zenbakira eta Asierrengatik galdetu.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, sukalde-jangela, egongela, komuna eta trastelekua. 2009an berriztatua, prezio onean. 676-19 91 54

**Bergara.** Apartamentua ematen da errentan erdigunean. Igogailu eta 75 metro koadroko terrazarekin. 616 87 29 65

**Conil (Cadiz).** Conilen apartamentua alokatzen da. Garajea eta igerilekua dauka. Telefonoa: 653-73 34 57

**Iruñea.** Datorren kurtsorako 3 logelako pisua alokatzen da Iruñean, Unibertsitatetik 5 minututara. Deitu 679-07 36 02 edo 948-56 44 82 telefonoetara.

**Lapuebla de Labarca.** Etxebizitza ematen da errentan uztailerako. Sukaldea, egongela zabala, bi logela, bi komun eta 11,5 metro koadroko terraza. Komunitateko igerilekua eta berdegunea. 653-71 89 11

**Muxika.** Muxikan pisua alokairuan. 3 logela, sukaldea eta egongela (+/- 70 m$^2$). Guztiz berritua eta bizitzen sartzeko moduan. 600 euro. 687-99 52 93 edo615-76 76 73.

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan Lope Agirre kalean. Lau logela, bi bainugela, egongela eta sukaldea. Altzariz hornitua. 659 64 39 63

**Oropesa (Castellon).** Apartamentua alokatzen da Oropesan. Kokaleku aparta: hondartzatik eta balneariotik gertu. Bi logela, bi bainugela, sukaldea, balkoia, eta egongela. Garaje eta igerilekuarekin.Telefonoa: 619-18 77 99

**Torrevieja (Alacant).** Bungalowa errentan ematen da Torreviejan. Hiru logela, egongela, sukaldea, solariuma. Urbanizazio pribatua berdegune eta igerileluekin. Telefonoa: 615-77 96 22 (Itxaso)

**Zestoa.** Duplex berri bat alokatzen da Iraetanurte guztirako: 700 euro hilean. 653-01 25 77.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Txikia eta erdigunean. 943-79 60 89

**Arrasate.** Apartamendu edo etxebizitza txikia hartuko nuke errentan. 696-18 56 61

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Interesa baduzu deitu mesedez telefono zenbaki honetara: 609-38 86 47

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke Bergaran. Deitu:699-09 46 26

**Donostia.** Pisu bila nabil Donostian, alokairuan. Emakume arduratsua naiz, ume batekin. Harremanetarako deitu: 692-05 58 60

**Oiartzun.** Alokatzeko baserri baten bila gabiltza Oarsoaldean. Baratzea lantzeko asmoz eta aukeran, oilotegi bat antolatzeko asmoarekin. Harremanetarako: *irekiateak@hotmail.com*

**Oñati.** Etxebizitza hartuko nuke errentan,igogailuarekin. 617-80 26 20

**Zaldibar.** Bikote gazte bat alokatzeko pisu bila Zaldibarren. Harremanetan jartzeko, deitu telefono honetara: 605-72 34 30

**Zarautz.** Pertsona garbia eta arduratsua, 34 urte, zarauztarra, errentan etxebizitza bat hartuko nuke Zarautzen. Udan etxea uzteko arazorik ez dut. Hileko 500 euro ordaintzeko prest nago (kopuruaz eta baldintzez hitz egin genezake). Ez dut erretzen. Ez dut animaliarik. Apartamentua txikia izatea ez zait axola. Berria bada hobe. Internet badu hobe. 688-69 63 79.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela bat ematen da errentan unibertsitatetik gertu. 655 71 77 85 edo 943 79 56 64.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitatetik gertu. 663 72 37 44.

**Bergara.** Etxea osatzeko pertsona bat behar da San Antonion. Terraza handia eta berogailua. 646 32 94 38.

**Bergara.** Gela baten bila nabil, errentan hartzeko. Deitu 699 66 33 63 zenbakira.

**Bergara.** Laguna behar dut etxea osatzeko. Deitu 639 94 48 65 telefonora.

**Bergara.** Neska gaztea lagun bila etxebizitza edo gela osatzeko. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara: 671 71 90 03.

**Bergarako** bi gazte etxebizitza osatzeko pertsona baten bila dabiltza. Etxea hiru logelakoa da eta erdialdean dago. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara: 610 31 02 61.

**Eskoriatza.** HUHEZIko hiru neska datorren ikasturterako etxebizitza bila ari gara.Harremanetarako telefonoa: 635-20 25 76

**Logelak, Erasmus ikasleendako.** Irailaren hasieratik Gabonak arte Mondragon Unibertsitatean ikasten egongo diren atzerriko ikasleentzako logelak behar dira. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara: 656 77 66 32.

**Oñati.** Logela ematen da errentan. Interesatuek deitu telefono honetara: 688 61 57 79

## 2/ GARAJEAK

### 203. ERRENTAN EMAN

**Durango.** Garajea alokagai lehen solairuan. Sarbide egokia. 94 681 77 15 edo 94 620 24 43.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Oñati.** Garajea hartuko nuke errentan San Lorentzon. 665-73 51 59

**Oñati.** Garaje itxia behar dut Kale Zaharrean edo aldameneko kaleren batean. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara: 647-24 40 54

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Irura.** Lokala Iruran, Laskibar bailaran, N-1 ondoan. 118 m2 eta 78.000 euro. Interesatuek deitu 645-72 19 47 telefonora.

**Lasarte-Oria.** Lasarten lokala salgai, 48 m2, Green plazan, sarrera kanpotik du eta aukera dauka etxebizitza bezala jartzeko legedi barruan, aire egokitua dauka eta komuna, komertzio bezala ere aukera onak eskaintzen ditu. 110.000 euro. Interesa izanez gero deitu 605-77 07 86 telefonora.

**Urretxu.** Pabilioi industriala alokatu edo saltzen da. Urretxuko Mugitegi industrialdean. 200 metro karratuko azalera eta 8 metroko altuera. Prezio onean. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara: 657- 77 97 52

### 303. ERRENTAN EMAN

**ARRASATE**

**Taberna errentan ematen da erdialdean.**

**665 70 88 30**

**Arrasate.** Lokala ematen da errentan San Andres auzoan. Musika taldeek entseatzeko aproposa. 639 15 37 32.

**Bilbo.** Bulego bi, 30 eta 40 m2, alokatzen ditut Bilbon. 639-66 36 89 edo *miarregui@euskalnet.net*

**Beasain.** Beasainen Martina Maiz kalean garaje itxia salgai, 25 m2 gutxi gorabehera. Ate automatikoarekin. Interesa izanez gero deitu 659-07 73 21 edo605-77 07 86 telefono zenbakietara. 48.000 euro.

**Bermeo.** Garajea salgai Kafe Antzokipean. Oinezkoaen sarreratik oso gertu eta maniobra egiteko ezin hobea. Prezio paregabean. 18.900 euro. 655-70 80 12.

**Durango.** Garaje itxia salgai, 15 metro karratukoa. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara: 618-89 65 91

**Durango.** Durangon garaje plaza bat salgai, Jesuiten parkinean. 661-12 62 81

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Esperientziadun emakume euskalduna behar da umea goizez zaintzeko. Arratsaldeko 8etatik aurrera deitu. 688 64 39 81.

**Bergara.** Neska euskalduna behar dugu goizetan bi ume zaintzeko. Arratsaldeetan libre. Deitu 20:30etik aurrera, mesedez. 635 74 28 84.

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Mari. 943 53 33 92.

**Arrasate.** 20 urteko mutila gertu eraikuntzan, garbiketan edo zerbitzari lanetan aritzeko. 619 78 63 41.

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetan jarduteko. Deitu 659 37 41 95 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Emakumea, 51 urtekoa, gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. 943 79 60 89.

**Arrasate.** Gizona gertu garbiketak egin, nagusiak zaindu edo sukalde laguntzaile lanetarako. 634 84 41 94.

**Arrasate.** Zerbitzari edo garbiketa lanak egingo nituzke. 619 78 63 41.

**Arrasate.** Emakumea gertu sukaldean lagundu, plantxa edo garbiketak egiteko, orduka. 647-16 40 49

**Arrasate.** Zerbitzari edo garbiketa lanak egingo nituzke. 619-78 63 41

**Arrasate.** Gizona gertu garbiketak egin, nagusiak zaindu edo sukalde laguntzaile lanetarako. 634-84 41 94

**Arrasate.** Bertako neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat. 618-00 08 28

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu orduka lan egiteko: nagusi edo umeak zaindu, plantxa eta abar. 699-54 17 27

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetan jarduteko.Interesa dutenentzat telefono zenbakia:659-37 41 95

**Arrasate.** Emakumea, 51 urtekoa, gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia:943-79 60 89

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientzia duena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. 606-42 6414

**Bergara.** Neska eskaintzen da zaintza lanetarako, orduka lan egiteko. Esperientziaduna. Iris. 677-73 79 59

**Bergara.** Emakume bat gertu dago zaintza lanak egiteko, kanpoan eta orduka. 697-27 25 20

**Beasain.** Neska arduratsua eskaintzen da haurrak nahiz adinekoak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko (tabernak, portalak...) orduka edo jornada osoan. Erreferentzia onak ditut. Deitu: 606-72 28 76

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Mari. Deitu: 943-53 33 92

**Azpeitia.** Esperientziadun neska eskaintzen da herrietako festetan lan egiteko uda osoan zehar. Interesatuak deitu 647-82 58 52 telefonora konpromisorik gabe. Eskerrik asko.

**Bergara edo Arrasate.** Neska euskalduna gertu pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko. Deitu 943 53 27 17 edo 616 84 13 07 telefono zenbakietara

**Bergara.** Emakume bat gertu dago zaintza lanak egiteko, kanpoan eta orduka. Deitu 697 27 25 20 telefonora.

**Bergara.** Neska bergararra etxeko lanak egiteko gertu. 943-76 28 12 edo 943-76 29 52

**Bergara.** Emakumea pertsonak zaindu edo garbitasun lanak egiteko gertu. Geriatria eta elikagaien manipulazioan titulduna. 650 62 12 94.

**Bergara.** Nagusiak zaindu edo garbitasun lanak egiteko gertu goizez eta gauez. Deitu 609 23 39 52 telefonora.

**Bergara.** Neska gertu dago zaintza lanetarako, orduka lan egiteko. Kanpoan zein barruan Esperientziaduna naiz. Iris. 677 73 79 59.

**Debagoiena.** Arrasate edo Bergara. Bertako emakume arduratsua gertu sukaldari laguntzaile lan egiteko. Menuetan, plater konbinatuetan eta pintxoetan esperientziarekin. 637-18 07 23

**Debagoiena.** Ostalaritzan esperientzia duen neska gertu sukaldari lanak egiteko. Deitu 648-75 07 97 telefonora.

**Debagoiena.** Autocad programarekin marrazkiak eta diseinu mekaniko zein arkitektonikoak egiten ditut. Deitu 696 38 10 07 telefonora.

**Debagoiena.** Emakume gazteak nagusiak edo haurrak zainduko lituzke. 606 72 28 76.

**Debagoiena.** Emakumea etxez etxe pedikura eta manikura egiteko prest. 654 79 07 58.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak eta haurrak zaintzeko. 649 71 95 21.

**Debagoiena.** Erizain laguntzailea gertu umeak eta nagusiak zaintzeko. 658 03 07 24.

**Debagoiena.** Esperientziadun mutila gertu nagusiak zaindu edo zerbitzari lanetan jarduteko. Ordutegi malgua. Deitu 646 07 79 60 telefonora.

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko eta ospitalean gauak egiteko. Deitu 637 18 07 23 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Esperientziadun neska umeak zaindu, nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Orduka edo etxean bertan bizi izatean. Deitu 689 88 97 66 zenbakira.

**Debagoiena.** Etxeko lanak zein garbiketak egingo nituzke. Baita sukalde laguntzaile ere. Deitu 630 20 12 03 telefono zenbakira.

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Ozaeta 105 m$^2$. Berritua.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Artekale 60 m$^2$. Berritua. 153.258 €.
- Zubiaurre 67 m$^2$. Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m$^2$. Oso ondo
- Barrenkale 82 m$^2$. Berritua.
- Osintxu. 70 m$^2$. Igogailuarekin.
- Bidekurutzeta 103 m$^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m$^2$. Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m$^2$. Prezio ona.
- San Pedro 65 m$^2$. Ganbararekin.
- Osintxu 64 m$^2$. Berritua. 114.192 €.
- Bidekurutzeta 65 m$^2$. Berritua. Igogailuarekin.
- Zubiaurre 58 m$^2$. Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m$^2$. Oso ondo.
- Osintxu 62 m$^2$. Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m$^2$. Berritua.
- Zubiaurre 52 m$^2$. Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, 196.200€.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- **AUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. **PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m$^2$. Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 m$^2$. Berritua.
- San Roke 80 m$^2$. 80 m$^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m$^2$. Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 m$^2$, garajearekin.
- Aranerreka, 80 m$^2$, oso ondo.
- Matxiategi, 88 m$^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m$^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m$^2$, oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m$^2$, ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m$^2$, berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m$^2$, berria, garajea eta trastelekua.
- Martoko, 87 m$^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m$^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 m$^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m$^2$ oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,99 m$^2$ + ganbara, berritzeko.
- Zabalotegi 80 m$^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m$^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Artekale, 81 m$^2$, oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m$^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 m$^2$, oso ondo.
- Zubieta, 125 m$^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m$^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m$^2$.
- San Antonio, 65 m$^2$, eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m$^2$, eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.
- Basarte. 69 m$^2$. Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m$^2$. Apartamentua. Oso ondo.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m$^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 m$^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m$^2$, ia berria.

**Debagoiena.** Gidabaimena eta autoa propioa daukan gazte bat lan bila dabil, edozein lan egiteko gertu dago. Deitu 606 78 35 94 telefonora.

**Debagoiena.** Gizona edozein lan egiteko gertu. Deitu 637 91 46 93 telefonora.

**Debagoiena.** Gizona edozein lan egiteko gertu. Deitu 645 72 92 87 telefonora.

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Deitu 689 27 94 21 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. 689 93 58 41.

**Debagoiena.** Etxeko lanak zein garbiketak egingo nituzke. Baita sukalde laguntzaile ere. Deitu 630-20 12 03 zenbakira

**Debagoiena.** Emakumea gertu ospitalean dauden gaixo zein nagusi edo umeak zaintzeko. Deitu gauetan, mesedez 943-71 46 24 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edota zerbitzari lanak egiteko. Zerbitzari titulazioa daukat. Esperientziarekin eta informe onekin. 671-35 22 60

**Debagoiena.** Emakumea gertu umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Esperientzia daukat. Deitu:689-88 97 66

**Debagoiena.** Sei urteko esperientzia dut nagusiak zaintzen eta etxean lo egiten edo egunean zehar lan egingo nuke. Bestelako lanetarako ere gertu nengoke. 638-89 98 60

**Debagoiena.** Debagoieneko esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko. Deitu 637-18 07 23 telefonora.

**Debagoiena.** Umeak arratsaldez zaintzeko prest nago. Esperientzia handiko neska. Bergaran edo Arrasaten. Deitu 650-23 34 98 telefonora

**Durangaldea.** Umeak zaintzeko prest astean zehar goiz edo arratsaldez. Euskaraz dakit eta Durangon bizi naiz. Telefonoa: 675-70 05 54. Marta

**Durangaldea.** Umeak zaindu edo eskolara eramateko 20 urteko neska prest. Telefonoa: 675-70 05 54. Marta.

**Debagoiena.** Erizain laguntzailea gertu umeak eta nagusiak zaintzeko. Deitu 658-030 724 edo658-03 07 24 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakume gazteak nagusiak edo haurrak zainduko lituzke. 606-72 28 76

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak eta haurrak zaintzeko. 649-71 95 21

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko gertu emakumea. 649-72 00 23

**Debagoiena.** Neska euskalduna, arduratsua eta esperientziaduna, haurrak zaintzeko prest. Arratsaldetan, 13:00etatik aurrera libre nago. 618-09 47 87 edo 943-78 15 10

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko eta ospitalean gauak egiteko. Harremanetan jartzeko deitu: 637-18 07 23

**Debagoiena.** Gizona edozein lan egiteko gertu. 637-91 46 93

**Debagoiena.** Lan bila nabil, pertsona edadetuenzainketarako edo atarien garbiketa lanak egiteko. Gainera, peoi lanposturako ere gertu nago. Enpresen segurtasun zerbitzuetan lan egiteko gertu. 666-08 58 49

**Debagoiena.** Mutil gaztea mendian lan egin edo banatzaile lanak egiteko gertu. Deitu 606-78 35 94 telefonora

**Debagoiena.** Gaztea gertu eraikuntzan edo bestelako arlo batean lan egiteko. Deitu 696-48 42 50 telefono zenbakira

**Debagoiena.** Gizona edozein lan egiteko gertu. 645-72 92 87

**Debagoiena.** Emakumea gertu lan egiteko. 606-64 16 09

**Debagoiena.** Autocad programarekin marrazkiak eta diseinu mekaniko zein arkitektonikoak egiten ditut. Harremanetarako telefonoa: 696-38 10 07

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Deitu telefono zenbaki honetara: 689-93 58 41

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Deitu 689-27 94 21 telefonora.

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu Arrasaten, Aretxabaletan edo Bergaran. 662-08 22 03

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu. Umeak zaindu, garbiketa lana edo jatetxeetan lan egiteko. 600-24 58 27

**Debagoiena.** Emakumea etxez etxe pedikura eta manikura egiteko prest. 654-79 07 58

**Debagoiena.** Mutila gertu edozein lan egiteko. 689 93 58 41.

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu. Umeak zaindu, garbiketa lana edo jatetxeetan lan egiteko. 600 24 58 27.

**Debagoiena.** Gaztea gertu eraikuntzan edo bestelako arlo batean lan egiteko. Deitu 696-48 42 50 telefonora.

**Debagoiena.** Ostalaritzan esperientzia duen neska gertu sukaldari lanak egiteko. Deitu 648 75 07 97 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko gertu emakumea. Deitu 649 72 00 23 telefono zenbakira.

**Durangaldea.** Esperientziadun sukaldaria eskaintzen da. Deitu 615-78 22 28 telefono zenbakira. Kotxe propioa.

**Edozein lan.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu Arrasaten, Aretxabaletan edo Bergaran. Deitu 662 08 22 03 telefono zenbakira.

**Neska euskalduna,** arduratsua eta esperientziaduna, haurrak zaintzeko prest. Arratsaldeetan, 13:00etatik aurrera libre nago. Deitu 618 09 47 87 edo 943 78 15 10 zenbakietara.

**Elorrio.** Neska euskalduna eta esperientziaduna arratsaldetan (astelehenetik ostiralera) haurrak zaintzeko prest. Orain hasteko edoirailetik aurrera. Haur Hezkuntzako goi mailako heziketa zikloa eginda daukat, eta gaur egun Hezkuntza Bereziko ikasketak egiten ari naiz. Interesa baldin baduzu, jarri zaitez nirekin kontaktuan. Honako hau da nire telefono zenbakia: 688-64 06 04 (arratsaldetan deitu).

**Goierri.** Etxeko lanak egitea gustoko duen esperientzia duen Goierriko neska bat naiz. Harremanetan jartzeko deitu: 660-02 85 52

**Sakana.** Plantxa, mekanografiako lanak,garbiketa eta helduen zainketa. 628-27 11 85 Maribel.

**Zarautz.** Andre euskalduna naiz, etxeko lanetarako prest nago,ostiralerako. Esperientzi haundia daukat. Harremanetan ipintzeko deitu 634-45 91 59 telefonora.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Arabierako** eskolak ematen ditut. 654 98 69 14.

**Arrasate.** Esperientziadun sukaldaria zure etxean bertan janaria prestatzen irakasteko gertu. Deitu 650 40 29 69 telefonora.

**Arrasate.** Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrak ematen ditu Arrasaten. Maila guztiak: unibertsitatea, zikloak, batxilergoa, DBH. Matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrizitatea... Arreta pertsonalizatua. 630 71 35 83.

**Bergara.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut. Elkarrizketa lantzeko ere bai. Interesa baduzu deitu telefono zenbaki honetara: 654-94 87 26

**Bergara.** Bergaran Ingeleseko Elkarrizketa lantzeko eskola partikularrak ematen ditut. Telefonoa: 654-94 87 26

**Debagoiena.** Ingeleseko elkarrizketa lantzeko eskola partikularrak ematen ditut. 654-94 87 26 eta 654-94 87 26

**Donostia.** 2010-2011 ikasturtean eskola partikularrak emateko prest dagoen neska ikaslea. Lehen Hezkuntza eta DBHrako. Euskara, Ingelesa, Matematika... beharrezkoa denean laguntzeko. 636-01 60 15. Ainhoa.

**Durango.** 4. mailako Telekomunikazio Ingenisritzako ikasle euskalduna Batxilergoko eta DBHko klaseak Durangon emateko prest. Espezialitatea matematika klaseetan.

**Durango.** Biologian lizentziatutako neska euskalduna eskola partikularrak emateko prest; biologia, natur zientziak, matematika, fisika-kimika... Telefonoa: 679-62 04 47

**Zarautz.** Lehen Hezkuntzako unibertsitate ikasketak egiten ari den neska gazte bat udaran LH edo DBHko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da.Telefonoa: 607-18 73 97

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Audi a3 2.0 tdi 140 zaldikoa.** Audi A3 2.0 TDI 140 zaldikoa. 5 urte eta 88.000km dauzka. Gris ilun kolorekoa. 5 ate eta serieko ekipamendua dauka. 15.000 euro. 646-30 52 55 edo 943-76 52 63

**Expert furgoneta salgai.** Expert furgoneta salgai, 3 urte, Bluetooth, airbag bikoitza,gris metalikoa, 110 zaldi potentzia. 688-68 97 82.

**Kawasaki Z750 salgai.** Kawasaki Z750 Salgai 2007koa. Kolore beltza. Oso egoera onean. 12.000 km, rebisio denak etxe ofizialean eginak. 5.500 euro. Harremanetan jartzeko deitu 660-33 77 16.

**Seat Leon salgai.** Seat Leon FR salgai. 2005eko ekainekoa. 57.000 km. Eguzki sabai elektrikoa. Serieko aurrekaldeko 2 fokoak eta 4 llantak opari. Beti garajean eta oso ondo zaindua. Extra ugarirekin. 11.200 euro.657-73 37 20 edo 646-32 36 83.

**Suzuki Samurai 1.3 autoa salgai.** Beste gurpil joko bat opari. Egoera onean. Deitu 615-72 72 41 telefonora.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Indioilar beltzak.** 8 hilabeteko Indioilar beltzak saltzen dira, arrautzak jartzeko prest. Bikotea 70 euro. Aretxabaletan. Deitu 690 65 39 37 edo 943 79 96 55 telefonoetara.

**Zaldi hispaniar-arabiarra salgai.** Monturakoa. 7 urte. Zuria. Deitu 616-00 34 29 telefonora.

### 704. BESTELAKOAK

**Arratoi txakurra oparitzen da.** Arratoi txakurra oparitzen da. Hiru hilabete ditu. Arra beltza. 686-07 61 60

**Txakurra ematen da.** 7 urteko txakurra daukat doan emateko. Arraza: Husky-Boxer. Baserria zaintzeko aproposa da. Deitu 618-20 47 93 telefonora.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

